# MUSIKAREN TEORIA

**(Bi zatitan)**

## Lehenengo zatia

## EGILEA:

**Jose Inazio Lopez de Luzuriaga Fernandez**

**Musikaren teoria**
(Bi zatitan)
Lehenengo zatia
©
Jose Inazio Lopez de Luzuriaga Fernandez
Telefonoa:
Inprimaketa:
ISBN:
Lege-gordailua:

# Hitzaurrea

Mendebaldeko musika akademikoa teknikoki oso konplexua da eta konplexutasun hori idazkeran islatzen da. Mende luzetan zehar musika besterenganatzeko idazteari ekin diote Mendebaldeko musikariek. Antzinako Grezian hasi eta gaurdaino, Mendebaldeko tradizio guztietan musika idatzia topatzen dugu. Zehazki, Mendebaldarrok praktikatzen dugun idazkera eta irakurketa Grezian hasitakoa da; XI. mendean bultzada handia jaso zuen[1] eta, ondoren, eraginkorragoa eta zehatzagoa izateko etengabe aritu da egokitzen.

Gaur egun idazketa-irakurketa sistema hori solfeo izenez ezagutzen da orokorrean, nahiz eta, administrazio- eta pedagogia-arazoak medio, sistema horren irakaskuntza lantzen duen ikasgaiari "musika-lengoaia" izena eman Hego Euskal Herriko musika-ikastetxeetan.

Historikoki solfeoaren irakaskuntzan bananduta landu dira alderdi praktikoak eta teorikoak. Gaur egun, aldiz, biak lotzeko joera dago eta lehen baino askoz ere gehiago teoria praktikari itsatsita agertzen zaigu. Hala ere, badira musikarien prestakuntza teknikoan derrigorrezkoak diren eta musikaren irakurketa praktikoan beharrezkotzat jotzen ez diren hainbat kontzeptu: kantu bat irakur daiteke, adibidez, dagoen tonua ezagutu gabe edo tonuari buruzko teoria jakin gabe. Bada, musikaren teoria honetan bi alderdiak bildu ditut: musikaren idazkeran erabiltzen diren zeinuak eta horiek interpretatzeko oinarrizkoak diren kontzeptuak eta baita musikaren interpretazioa egokia izan dadin behar diren bestelako kontzeptu orokorrak ere.

Gainera, teoria honetan ohiko teorietan aipatzen ez diren hainbat argibide agertzen dira. Definizioetan, adibidez, musikaren ikuspegi teknikoaz gain, musikan biltzen diren antropologiako, soziologiako eta historiako alderdiak ere ager daitezke, modu apalean bada ere.

Musikaren teoria hau, euskaraz egin den lehena da. Hori dela eta, hizkuntzari lotutako ñabardurak topatuko dituzu barruan, beste hizkuntzetako ikasliburuetan agertzen ez direnak. Euskarazko lehen teoria-lana izateak euskararen erabilera egokiaz oharrak egitera behartzen du; hala, zeinuen izenak eta esangura irakasteaz gain, izen tekniko horiek biltzen dituzten euskarazko esapideak ere jarri ditut teoria honetan.

Musikaren teoria hau irakasleentzako da, baina ikasleak ditut gogoan. Horregatik, definizioak ulerterrazak dira, adibide ugari dago eta gaiaren arabera hainbat ariketa iradokitzen dut. Ariketa horiek modu atseginean egitekoak dira eta irakasleak ikasleei jarri ahal izango dizkie egokia ikusten duen unean eta kopuruan; hau da, ikasleen gaitasunaren eta lanerako duten denboraren arabera.

Ikasgaien azalpenei dagokienez, hizkuntza erraz eta aldi berean tekniko eta zehatza erabili dut. Hala ere, tarteka hitz berriak agertzen dira eta, hori dela medio, hainbat kasutan sinonimoak erabiltzen ditut kontzeptuak ulergarriagoak izan daitezen. Gure artean frantses eta espainiar hitzak erabat sartuta daude eta, hala, solfeoaren inguruan erabiltzen diren hainbat kontzeptu argitzea komenigarria iruditu zait.

**Egilea**

[1] Arezoko Guido fraideak "solmisazio" izeneko idazketa-irakurketa sistemaren oinarriak finkatu zituen XI. mendearen hasieran.

# Aurkibidea


| GAIAK | Orrialdea |
|---|---|
| **Musikaren teoria honen nondik norakoak** | 9 |
| Musikaren teoria | 9 |
| Musika euskaraz ikasi ahal izatea | 9 |
| Oraingo musika-irakaskuntzan dauden hainbat hutsune betetzea | 9 |
| Musika mota guztiak aztertu ahal izateko lagungarria izatea | 10 |
| Hitzen hautaketan jarraitutako irizpide nagusiak | 11 |
| **Musikaren teoria: LEHENENGO ZATIA** | 13 |
| **1. Boslerrokoa, lerroarteak eta lerro eta lerroarte gehigarriak** | 15 |
| 1.1. Boslerrokoa | 15 |
| 1.2. Lerroarteak | 15 |
| 1.3. Lerro gehigarriak | 15 |
| 1.4. Lerroarte gehigarriak | 16 |
| **2. Hots-altuerak, notak eta nota-eskailerak edo eskalak** | 17 |
| 2.1. Hots-altuerak eta beren mugak | 17 |
| 2.2. Notak eta goranzko eta beheranzko hots-mugimenduak | 17 |
| 2.2.1. Noten definizioa | 17 |
| 2.2.2. Noten izenak | 18 |
| **3. Tonua, tonuerdia eta noten arteko altuera-tarteak** | 21 |
| 3.1. Tonua eta tonuerdia | 21 |
| 3.1.1. Nota-eskaileran, segidan agertzen diren noten arteko altuera-tarteak | 21 |
| **4. Denbora-ikurrak (I): Hots-ikurrak** | 23 |
| 4.1. Denbora-ikurren definizioa | 23 |
| 4.2. Hots-ikurrak | 23 |
| **5. Denbora-ikurrak (II): Isilune-ikurrak** | 27 |
| 5.1. Isilune-ikurren definizioa | 27 |
| 5.1.1. Isilune fisiologikoak eta isilune adierazgarriak | 27 |
| **6. Nota-giltzak** | 31 |
| 6.1. Nota-giltzaren definizioa | 31 |
| 6.2. SOL, DO eta FA nota-giltzak | 31 |
| 6.3. Akustika-adierazlea eta diapasoia edo akordatze-nota | 32 |
| 6.4. Nota-giltzen arteko altuera-harremana | 32 |
| **7. Bigarren lerroko SOL nota-giltza** | 35 |
| 7.1. Noten kokapena bigarren lerroko SOL nota-giltzan | 35 |
| 7.2. Graduak: gradu elkartuak, gradu bananduak eta graduen izenak | 36 |
| **8. Denbora-ikurrak (III): Lotura, puntua eta puntu bikoitza** | 39 |
| 8.1. Lotura | 39 |
| 8.2. Puntua | 39 |
| 8.2.1. Hots- eta isilune-ikur puntudunen iraupenak | 39 |
| 8.3. Puntu bikoitza | 40 |
| **9. Musika-diskurtsoaren denbora (I): Denbora, neurria, taupada eta banalerroa** | 43 |

9.1. Denbora kontzeptua 43
9.2. Denbora jarraitua eta denbora neurtua 44
9.3. Neurriak eta taupadak 45
9.4. Banalerroak eta errepikatze-zeinuak 46

**10. Musika-diskurtsoaren denbora (II): Musika-azentua** 49
10.1. Neurriaren azentuazioa 49
10.2. Taupada edo pultsazio motak 49
10.2.1. Taupada fisiologikoak edo fisiologia-taupadak 50
10.2.2. Neurrien taupadak eta taupada-zatien azentuak 50

**11. Musika-diskurtsoaren denbora (III): Neurrien sailkapena** 51
11.1. Neurrien sailkapena eta musika-lengoaia edo solfeoa 51
11.1.1. Neurri bikunak 51
11.1.2. Neurri hirukunak 53
11.1.3. Neurrien iraupena 53

**12. Musika-diskurtsoaren denbora (IV): Ohiko neurrien deskribapen orokorra** 55
12.1. Neurri soilak edo sinpleak 55
12.2. Askotariko edo amalgamako neurriak 57

**13. Musika-diskurtsoaren denbora (V): Iraupen bereziko nota-multzoak** 59
13.1. Iraupen bereziko nota-multzoen definizioa 59
13.1.1. Laburpeneko iraupen bereziko nota-multzoak 59
13.1.2. Luzapeneko iraupen bereziko nota-multzoak 61
13.1.3. Iraupen bereziko beste nota-multzo batzuk 62

**14. Musika-diskurtsoaren denbora (VI): Musika-diskurtsoaren abiadura** 65
14.1. Neurri-abiadura edo -mugimendua eta tempoa 65
14.1.1. Era iraunkorrean neurri-mugimendua adierazten duten italiar hitzak 65
14.1.2. Aurreko hitzen esangurak apur bat aldatzen dituzten italiar hitzak 66
14.2. Metronomoa 67

**15. Musika-diskurtsoaren denbora (VII): Neurri-mugimenduaren aldaketak** 69
15.1. Neurri-mugimenduaren beste aldaketa batzuk eta etenak 69
15.1.1. Iraunkorki neurri-mugimendua bizkortzea adierazten duten hitzak 69
15.1.2. Iraunkorki neurri-mugimendua mantsotzea adierazten duten hitzak 69
15.1.3. Neurri-mugimenduaren behin-behineko aldaketak 70
15.1.3.1. Neurri-mugimendua emeki-emeki bizkortzeko hitzak 70
15.1.3.1. Neurri-mugimendua emeki-emeki mantsotzeko hitzak 70
15.1.4. Ohiko neurri-mugimendua berreskuratzeko hitzak 71
15.1.5. Zehaztu gabeko neurri-mugimendua adierazten duten hitzak 71
15.1.6. Dagoen neurri-mugimendua egiaztatzen duten hitzak 71
15.1.7. Eten-txapela 71

**16. Aldakariak. Diatonia, kromatia eta enarmonia** 73
16.1. Aldakarien definizioa eta aldakari motak 73
16.2. Aldakari finkoak eta behin-behinekoak edo iragankorrak 73
16.3. Diatonia, kromatia eta enarmonia 76

**17. Neurrien azentu-aldaketak** 79
17.1. Sinkopa, kontrazentua eta anakrusa-nota 79
17.1.1. Azentu-aldaketaren definizioa 79

17.1.2. Sinkopa 79
17.1.2.1. Sinkoparen luzera 79
17.1.2.2. Sinkopa bikunak edo erregularrak eta sinkopa irregularrak 80
17.1.3. Kontrazentua 80
17.1.3.1. Kontrazentuen luzerak 81
17.1.3.2. Kontrazentu bikunak eta kontrazentu irregularrak 82
17.1.4. Anakrusa-notak 82

**18. Notarteak (I): Oinarrizko kontzeptuak eta sailkapenak** 85
18.1. Notartearen definizioa 85
18.2. Notarte elkartuak eta notarte bananduak 85
18.2.1. Notarte elkartuak 85
18.2.2. Notarte bananduak 85
18.3. Doinu- eta harmonia-notarteak 86
18.3.1. Doinu-notartea 86
18.3.2. Harmonia-notartea 86
18.4. Notarteen zenbaketa 86
18.4.1. Notarte-sailkapena nota-eskaileraren ordenaren arabera 86
18.4.2. Notarte soilak eta notarte anizkunak edo konposatuak 86

**19. Notarteak (II): Beste sailkapen batzuk** 89
19.1. Notarte-sailkapena tonu kopuruaren arabera 89
19.1.1. Laudun, bostun eta zortzidun notarteen sailkapena 89
19.1.2. Bidun, hirudun, seidun eta zazpidun notarteen sailkapena 91

**20. Notarteak (III): Notarte alderanztea** 97
20.1. Notarte alderanztearen definizioa 97
20.2. Notarte alderanztearen zenbakikuntza 97
20.3. Notarte alderanztearen sailkapena 98
20.3.1. Notarteen alderanzteak aldakaririk gabe 98
20.3.2. Notarteen alderanzteak aldakariak erabiliz 100

**21. Musika-kontakizunaren denbora (VIII): Errepikatze-, bidaltze- eta laburtze-zeinuak**
21.1. Errepikatze-zeinuak 103
21.2. Bidaltze-zeinuak 103
21.3. Laburtze-zeinuak 104

**Bibliografia** 107
Musika-teoria honetan aipatutako bibliografia 107
Kontsultatutako bibliografia 107
Hizkuntzak eta musika 107

# Musikaren teoria honen nondik norakoak

**Musikaren teoria**

Esku artean duzun musikaren teoria hau teoria orokor baten lehen zatia da. Bere osotasunean teoria orokorra da, baina aldi berean oinarrizkoa; hau da, bertan musika--irakaskuntzan lantzen diren gai guztiak bildu dira baina gaiak oinarrizko mailan landu dira, salbuespenak salbu. Izan ere, hainbat gai, tonuera kasu, era sakonagoan landu dira.

Bertan musika-jardueran eta musika-irakaskuntzan funtsezkoak diren hitzak, adigaiak eta musika-ezagupen teknikoak bildu dira; tarteka, baina, kultura-alderdiak, gizarte-alderdiak eta historia-alderdiak ere aipatzen dira.

**Honako hauek dira teoria honen jomuga nagusiak: a)** musika euskaraz ikasi ahal izatea; **b)** oraingo musika-irakaskuntzan dauden hainbat hutsune betetzen laguntzea; eta **c)** musika mota guztiak aztertu eta beren testuinguruan ulertu ahal izateko lagungarri izatea.

**Musika euskaraz ikasi ahal izatea**

Euskarazko musika-irakaskuntza eta, orokorrean, euskaraz gauzatzen den musika--jarduera oro, normaltasunez eta era orokorrean garatzeko laguntza-tresna bat plazaratzea da teoria honen jomuga nagusienetako bat. Euskara batzeko dagoen premia izan dut gogoan eta, hala, Hego Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herrian hizkuntza beraren erabilera bultzatzea bilatu dut.

**Oraingo musika-irakaskuntzan dauden hainbat hutsune betetzea**

Musika-irakaskuntzan hainbat hutsune sumatu ditut nire bizitza profesionalean. Hutsune horiek kultura- eta historia-alorretan, teknika-alorrean eta hizkuntza-alorrean ere antzeman ditut. Bada, teoria honen bidez hutsune horiek betetzea espero dut.

**Kulturaren ikuspegitik** aztertuta, gure ikastetxeetan, absolutu moduan eta ezinbesteko legez irakatsi dira, eta neurri batean irakatsi ere egiten dira, Mendebaldeko musika akademikoaren osagaiak eta musika horren inguruan sortutako usteak eta balioak. Gaur egun, baina, globalizazioak, gizartearen garapen bizkorrak, balioen etengabeko aldaketek eta, besteak beste, musikan, orokorrean, biltzen diren ideia, gai eta eginbide berriek, aurreko tradizio akademikoan zegoen ikuspegi estua zabaltzea eskatzen dute. Akademiako tradizioko musika, bat eta bakarra balitzatekeen irakatsi da eta, neurri batean, irakatsi ere egiten da eta hori ez dator bat oraingo errealitatearekin.

Bestalde, musikaren ordezkaritza-izaera eta haren erabilera eta garrantzia, errituetan axolagabetu egin dira klaseetan. Kulturan, errituetan eta norbanakoen gizarte-kokapenean musikak duen eragina, haren erabilera eta haren garrantzia ezagutu egin behar dira; gure garaian aldaketa nabarmenak gertatu dira alor horretan: aniztasunak molde klasikoko bakartasunari hartu dio txanda eta, musikak, era eta joera askotako musikak, baztertuak izatetik errespetagarriak izatera pasatu dira. Nolabaiteko justizia egin da era horretan, batez

ere musika horien bidez beren burua ordezkatuta sentitzen zuten eta orain arte baztertuta egon diren hainbat kultura-gizarterekin. Dena den, aurrera egiteko hausnarketa egin behar da, hausnarketa gizartearen bilakaeraz, orokorrean, baina baita aurreko mendeetan erabilitako balioez, kontzeptuez, eginbideez, eta musika ardatza duten errituez ere.

**Teknikaren ikuspegitik**, gure irakaskuntza-sisteman ez dago musika-objektuak teknikoki definitzeko ohiturarik eta, halakorik egin denean, definizioak ez dira landuak izan. Definizio horiek akademiako tradizio idealista baten barruan kokatu dira historikoki eta, sarritan, mugatzaileak eta baztertzaileak izan dira. Tonuera eta denbora bezalako adigaiak, gai konplexuak eta musikan funtsezkoak direnak, adibidez, zehaztu gabe irakatsi dira batzuetan eta hori akats teknikoa izateaz gain, pedagogia-akatsa ere bada. Tradizio idealistatik eratorritako kontzeptuek Mendebaldeko musika akademikoaren helburuak mugatzen dituzte, kasurik hoberenetan; alabaina, orokorrean, zaila da definizio horiek beste balioetan oinarritutako musika-adierazpenen azterketan erabiltzea. Bestalde, oraingo musika--irakaskuntzan alderdi tekniko batzuk ez dira aipatzen, ezinbestekoak baitira (akordatze- edo afinatze-sistemak, musika-materialak, isilune adierazgarri eta fisiologikoak, errituak, gizarte-oinarriak, historia-oinarriak...), beste alderdi tekniko batzuk gutxi lantzen dira (denbora, tonuera, etenak...) eta beste alderdi tekniko batzuk era desegokian lantzen dira: kontsonantziaren eta disonantziaren absolututasuna, moduaren eta tonuaren bereizketa eza eta abar.

**Hizkuntza batasunari dagokionez**, batasunik gabe eta, batzuetan, noraezean ibili gara euskaraz irakasten dugun musika-irakasleok. Ipar Euskal Herrian frantsesetik hartutako maileguak erabiltzen dira, orokorrean, eta Hego Euskal Herrian espainieratik hartutakoak erabiltzen dira etengabe. Gainera, norberaren joeren, gustuen edo hizkuntza-gaitasunaren arabera, gerta daiteke toki edo ikastetxe beraren barruan lexiko ezberdina erabiltzen duten eta elkarrekin lan egiten duten irakasleak egotea. Bada, teoria honetan proposatzen diren hitzen, esapideen eta ikurren eraginkortasuna frogatuta dago irakaskuntza praktikoan. Harmonia- eta konposizio-klaseetan erabili ditut azken urte hauetan eta emaitzak onak izan dira. Hala ere, emaitza horiek hobe daitezke; izan ere, hainbat kasutan ikasleek erdal terminologia dakarte klasera, erdarazko edo euskarazko klaseetan ikasita. Beste kasu batzuetan, ikasleek jakin badakite euskal terminologia; alabaina, haien irakasleen edo ikastetxearen arabera aldeak izaten dira haien artean. Ez dago hizkuntza-batasunik. Hori dela eta, musika-teoria hau hiztegi tekniko bateratuaren sorrerarekin lotu behar da eta musika-irakaskuntzan euskararen erabilera normala izatea du jomuga nagusia.

**Definizioak,** teknikak eta, ahal den neurrian, musikan unibertsalak izan daitezkeen osagaiak biltzen saiatu naiz. Notarte, denbora edo tonuera adigaiak definitzean, adibidez, ez dut gogoan izan Mendebaldeko musika soilik, nahiz eta musika hori teoriaren ardatza izan. Hotsen hautaketa, hotsen arteko jokoak eta denboran zehar antolatzen diren musika--diskurtsoak ezberdinak izan daitezke, itxuraz, musika-kultura batean eta bestean; hotsen antolaera edo eginbide legez, baina, osagai komun ugari dute. Hori dela eta, definizioak zehaztean, ezagutzen ditudan musika mota guztiak izan ditut gogoan.

### Musika mota guztiak aztertu ahal izateko lagungarri izatea

Hala bada, musikaren teoria hau kultura guztiak eta musika mota guztiak ulertzeko lagungarri izatea espero dut; bai gure lehengo eta oraingo kultura eta musika eta baita gureak ez diren beste garai batzuetako eta beste toki askotako kulturak eta musikak ere. Hori da lan honen beste jomuga nagusietako bat. Horregatik, definizioak era tekniko eta irekian eman ditut eta, hainbat kasutan, gizarte, kultura eta historiari buruzko aipamen batzuk ere egin ditut bertan.

**Hitzen hautaketan jarraitutako irizpide nagusiak**

Hizkuntza komunikazioari lotuta dago eta komunikazioa testuinguru jakin batean gertatzen da. Hitzen esangura osoa soilik testuinguru jakin batean gauzatzen da eta, kontrako norabidean, hitzen esangurak testuinguru horren isla dira. Hori da teoria honekin gertatzen dena: musika-alorrean euskararen egoera ez dago normalizatua; teoria-lan hau egoera horren isla da eta, alde berean, egoera horretan eragiteko sortu da. Hori dela eta, bertako hizkuntzaren erabilera normalizatua dagoen toki batean ezohikoak izan daitezkeen hainbat irizpide topatuko dugu teoria-lan honetan.

Komunikazio-estrategiak komunikazio-egoeran daudenen arteko ulermen osoa ahalbideratu behar du, irakasle-ikasleen artekoa izan, profesionalen artekoa izan edo dena delakoa izan. Komunikazio teknikoan are gehiago sumatzen da premia hori; hizkuntza argi eta koherentea erabiltzea guztiz lagungarria suertatzen da jarduera profesionalean. Ildo horretan, euskal hitzek erraz lagun dezakete komunikazioa; hitz elkartuak eta izen-sintagmak erabiliz, adibidez, zehaztasun osoz deskriba daitezke berez konplexuak diren objektuak.

Hori guztia dela bide, hitz teknikoak aukeratzean ondorengo irizpideak izan ditut gogoan:

Testuinguruari dagokionez, **hitzak Euskal Herri osoan erabilgarriak izatea**; hau da, teoriak baliagarria izan behar du Hego zein Ipar Euskal Herrian. Hizkuntzaren batasunaren alde egin dut teoria egiterakoan. Hori dela eta, frantsesez eta espainieraz erabiltzen diren hainbat hitz sartu ditut teorian, nahiz eta, teknikoki, euskaratik sortutako beste batzuk egokiagoak izan. "Dominante" hitza sartu dut teorian, adibidez, nahiz eta nota edo gradu horrek musika-diskurtsoan betetzen duen zereginaren ikuspegitik "**eragile**" hitza askoz ere egokiagoa izan.

**Hitzak hautatzean lehentasuna euskaratik sortutako** hitzei eman diet eta bigarren mailan utzi ditut frantsesetik edo espainieratik hartutako maileguak. Gogoan izan dut, arestian adierazi dudan bezala, bere objektua deskribatzeko euskal hitzek agertzen duten gaitasuna; *"notarte"* (nota+tarte) edo *"lerroarte"* (lerro+tarte) hitzen aurrekari historikoak, adibidez, toponimian eta hizkera arruntean topatzen ditugu: Etxarte, Uriarte, Iriarte, Holtzarte, Lasarte, Uribitarte, Olarte, Bidarte, Errekarte, Haitzarte, Haizp(b)itarte, Anabitarte, gizarte, jendarte, elkarte eta abar. Gauza bera gertatzen da *"beherakari"*, *"gorakari"* eta *"normalkari"* hitzekin, ederki deskribatzen dute beren objektuen zeregina. Beste hitz batzuk, *"taupada"*, *"tonuerdi"*, *"nota-giltza"*, *"tonu-giltza"*, *"neurri-ikur"*, *"akustika-adierazle"*, *"laudun"*, *"bostun"* eta abar, ere, guztiz deskriptiboak dira eta euskararen ohiko erabileran oinarritzen dira.

Bide batez, hitzen hautaketaz baliatu naiz espainiar (eta frantziar) hiztegietan dauden **hainbat desegokitasun zuzentzeko eta hutsuneak betetzeko**:

- Tonuera eta moduera bereizi egin ditut. *"Tonu maior"* eta *"tonu minor"* erabili ditut, baina kasu horietan ez dut *"modu maior"* edo *"modu minor"* erabili. *"Modu"* hitza moduераren arabera antolatutako musikaren objektu legez erabili dut.
- Isilune adierazgarriak (musikaren beharrek sortutakoak) eta isilune fisiologikoak (fisiologiako beharrek sortutakoak) bereizi egin ditut. Era horretan, musikaren azterketan musika ororen espezializazio-maila edota izaera soziala deskribatzeko tresna bat eskuratu dut. Azkueren eta Aita Donostiaren kantutegietan adierazgarri legez agertzen diren hainbat eta hainbat isilune fisiologikoak direla gogoratu behar dut.
- *"Denbora"* eta *"abiadura"* bereizi ditut nahiz eta hainbat hizkuntzatan biak nahasteko joera izan.

**Nazioarteko hitzak**, orokorrean, nire egin ditut (*allegro, piano* eta *ad libitum*, adibidez). Hala ere, alemanen eta ingelesen hiztegietan sumatzen den joera nire eginez, nazioarteko hitzen ondoan euskarazko baliokideren bat sartu dut guztietan; izan ere, musika mota batean erabilgarria izan daitekeen hitz bat, anakronikoa edo lekuz kanpokoa izan daiteke beste musika mota batean edo beste eremu semantiko batean (*allegro* hitza, rock musikan adibidez). Beraz, nazioartean ezagunak diren hitz teknikoak aintzakotzat hartu ditut eta nazioarteko hitz horien ondoren horien euskarazko ordainak sartu ditut, beste musika-eremutan eta, orokorrean, musikatik at ere erabilgarriak izaten direnak. Alabaina, nazioarteko hiztegi teknikoan joera bat baino gehiago agertzen denean, kasuaren eta egoeraren arabera jokatu dut. Denbora-ikurren alorrean hainbat joera agertzen dira nazioartean, adibidez: sinboloaren irudian oinarritutako hitzak erabiltzen dira frantsesez: *ronde* = borobila, *noire* = beltza eta abar; sinboloaren irudian eta denbora kontzeptuan oinarritutako hitzak erabiltzen dira espainieraz: *redonda* = borobila eta *negra* = beltza (irudiak) izenen ondoan *semicorchea* = kortxeaerdia (denbora), adibidez. Besteak beste Amerikako ingelesez, alemanez eta italieraz, aldiz, denboran oinarritutako hitzak erabiltzen dira orokorrean: *quarter note* Amerikako ingelesez), *viertelnote* (alemanez) eta *minima* (italieraz). Bada, nik Hego Euskal Herriko praktikan oinarritutako hitzak lehenesten baditut ere, kontraesanak kontraesan, horien ondoan denboran oinarritutako hitzak dakartzat, agian egun batean erabiliko direnak: ***luze, luzerdi, ertain, labur, laburrerdi*** eta abar. Espainieratik eta frantsesetik hartutako hitzen erabilera handia da gure artean eta, hori dela medio, hainbat kasutan hitz horiek onartu behar ditugu. Antzeko gauza gertatzen da *boslerroko* hitzarekin; izen ugari erabiltzen dira nazioartean.

Sinonimoei dagokienez, gogoan izan dut euskal hiztegia osatu behar dugula. Hala bada, erdal sinonimoen erabilera zuhurraz gain, hizkuntza teknikoan derrigorrezkoa ikusi dut **euskal sinonimoen artean ere hitz bat lehenestea**: *bizkor, bizi, arin, fite, azkar* eta *laster* sinonimoen artean, adibidez, nik *bizkor* hitza hobetsi dut; kontrako ildoan *mantso, poliki, motel, astiro, geldika* eta *geldo* sinonimoen artean *mantso* hobetsi dut.

**Hizkuntzaren batasuna** indartzeko eremu semantiko bakoitzean hitz bera edo bertsuak erabili ditut. Hala, *boslerroko* hitza erabili badut musika idazteko tokia adierazteko, *lerro* hitza gorde dut horrekin lotzen diren objektuak adierazteko, *"lerroarte"*, eta, hala, eremu horretan *"marra"*, *"taxu"* edo *"linea"* hitz sinonimoak alboratu egin ditut. Edo, beste kasu bat aipatzearren, solfeo edo musika-lengoaiaren hasieran *"notarte maior"* eta *"notarte minor"* esapideak erabili baditut, *"maior"* eta *"minor"* hitzak erabili ditut, era berean, aurrekoekin lotzen diren tonuen eite edo izaerak adierazteko: *"tonu maior"*, *"tonu minor"*.

**Musikaren historia** ere gogoan izan dut hitzak hautatzean. Kontzeptuak balioztatzean eta interpretatzean gogoan izan ditut hitz horiek historian zehar izan dituzten esanahi-erabilerak. Bide batez, gogoan izan ditut antropologiarekin, soziologiarekin eta semantikarekin lotzen diren hainbat kontzeptu, *"denbora"* adibidez.

Langile guztiek berezko hizkera profesionala dute eta nahiz eta sinonimoak diren hitz arruntak egon, profesionalek nahiago dute beren eguneroko jardueran esangura zehatza duten hitzak erabiltzea. Hizkera horiek ikastea ikasleentzat lana izaten da; hala ere, hizkera horrek lanbidean eskaintzen duen zehaztasunak ongi baino hobeto konpentsatzen du lan hori. Hala bada, hitzak aukeratzean, gogoan izan ditut **jarduera profesional guztietan gauzatzen diren komunikazio-modu bereziak**: sendagileek beren hizkera dute, mekanikoek beren hizkera dute, abokatuek gauza bera eta abar.

Horrez aparte, gogoan izan dut, baita ere, **euskara aberasteko eta garatzeko dagoen premia**. Gainerako hizkuntzetan diharduten musikarien eta profesionalen antzera, gure musikazko bizipenak euskaraz bizitzeaz gain, euskal musikariok hizkuntza aberastu eta garatu egin behar dugu. Europar testuinguruan bitxia eta ezohikoa da hizkuntza-arrunkeria agertzen

duen teknikari batekin topo egitea. Beraz, musikariok hizkuntza jasoa eta euskara landua erabili behar ditugu geure jarduera profesionalean eta, gainera, euskara garatu egin behar dugu geure jarduera pedagogikoan eta profesionalean.

# Musikaren teoria


## Lehenengo zatia

# 1. Boslerrokoa, lerroarteak, lerro eta lerroarte gehigarriak.

## 1.1. Boslerrokoa[2].

***Boslerrokoa,*** *musika-zeinuak idazteko erabiltzen den lerro-multzoa da*[3].


Boslerrokoa paraleloan doazen bost lerrok eratzen dute; haren barruan eta inguruan musika-zeinuak idazten dira eta behetik gora zenbatzen dira.



## 1.2. Lerroarteak.

***Lerroarte*** *izena ematen diegu boslerrokoaren lerroen artean dauden tarteei.*

Lerroak bezala, boslerrokoa osatzen duten lerro eta lerroarteak, behetik gora zenbatzen dira. Lehenengo lerroa behealdean dagoena da eta bosgarrena goialdean dagoena.




## 1.3. Lerro gehigarriak.

Boslerrokoan hotsak ordezkatzen dituzten zeinuak idazten dira, besteak beste. Batzuetan, baina, boslerrokoaren barruan ezin dira idatzi hots oso altuak edo oso baxuak ordezkatzen dituzten zeinuak. Hala, kasu horietan, zeinu horiek idazteko lerro gehigarriak gehitzen dira boslerrokoaren gainean edo azpian.

*Boslerrokoaren gainean eta azpian jartzen diren lerro paralelo txikiak* ***lerro gehigarriak*** *dira.*

Lerro gehigarriak boslerrokotik abiatuta zenbatzen dira; hala, boslerrokoaren ondoan dagoen lerroa lehenengo lerro gehigarria da, bai boslerrokoaren azpikoa eta baita boslerrokoaren gainekoa ere; ondorengoa bigarren lerro gehigarria, hurrengoa hirugarrena eta abar.


Lerro gehigarriak:

---

[2] Ipar Euskal Herrian *"porte"* hitza erabiltzen da, boslerrokoaren ordez, eta *"pentagrama"* hitza ere ezaguna da. Hego Euskal Herrian, aldiz, *"pentagrama"* hitza erabiltzen da. Bestalde, inguruko estatuetan erabiltzen diren hitzez gain, gure hitz propioak sortzea eta erabiltzea hobesten dugu. Hori dela eta *pentagrama* hitzaren erabilera ontzat ematen badugu ere, *boslerrokoa* hobesten dugu.

[3] Hitz etzanaz funtsezko adigaien definizioak eman ditut. Ikasleek, ulertzeaz gain, buruz ikasi beharrekoak lituzkete horiek. Definizio batzuk zailak suertatzen badira ikasleentzat, irakasleak eduki bertsuak biltzen dituzten beste definizio batzuk proposa ditzake. Hala eta guztiz ere, buruz ikasten badituzte, hobeto barneratuko dute definizio bakoitzari dagokion edukia. Era horretan, hainbat kasutan musikarien artean gertatzen den musika--adigaiei buruzko hausnarketa-faltari amaiera eman ahal izango diogu.

Musika idazteko beharra gizartearen garapenari lotuta dago. Hala, musika idazte soilak, gizarte baten antolaera, bere maila teknikoa, bere balioak eta bere ekonomia indartsua jartzen ditu agerian.





## 1.4. Lerroarte gehigarriak.

*Boslerrokoaren gainean eta azpian jartzen diren lerroarteak dira* ***lerroarte gehigarriak.***

Boslerrokoan gertatzen den era berean, lerroarte gehigarrietan ere musika--zeinuak idazten dira.

Lerroarte gehigarriak ere lerro gehigarriak bezala kontatzen dira, boslerrokotik abiatuta; boslerrokoaren ondoan dagoen lerroarte gehigarria lehenengoa da, ondorengoa bigarrena, hurrengoa hirugarrena eta abar.

Lerroarte gehigarriak:




**1. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ikasleek boslerrokoa marraztuko dute.

**b)** Lerro eta lerroarte bakoitzari dagokion zenbakia jarriko diote.

**c)** Lerro eta lerroarte gehigarriak marraztuko dituzte eta horiei ere dagozkien zenbakiak jarriko dizkiete.

# 2. Hots-altuerak, notak eta nota-eskailerak edo eskalak.

## 2.1. Hots-altuerak eta beren mugak.

Naturan sortzen diren hots-altueren kopurua mugagabea da. Hala ere, gure musika akademikoan hots kopuru mugatu bat besterik ez dugu erabiltzen; ahotsez edota musika-tresna batzuen bidez egin daitezkeen hots guztietatik kopuru mugatu bat alegia. Izan ere, gure kulturan musika-tresna batzuek ez ditugu aintzakotzat hartzen; erabiltzen ditugun musika-tresnen hots guztiak ez ditugu aintzakotzat hartzen; eta ahotsez sor ditzakegun hots guztien artean ere, bakar batzuek besterik ez ditugu aintzakotzat hartzen.

Bi dira hotsen mugatze hori eragiten duten arrazoiak:

**a)** Hots kopurua kulturalki mugatua da.

Europako musikan gaur egun erabiltzen diren hots-altuera zehatzak ez dira Erdi Aroan edo Berpizkunde garaian Europan erabiltzen ziren bertsuak, ez eta beste kultura batzuetan, egun, erabiltzen direnak ere. Euskal Herrian bertan, kantu herrikoietan eta hainbat musika-tresnen adierazpenetan (txanbelan eta txistu eta alboka klasikoetan, adibidez) ez dira hots-altuera zehatz horiek erabiltzen[4]. Beraz, kultura bakoitzak bere hotsak hautatzen ditu eta hautaketa hori aldatu egin daiteke garai batetik bestera. Gainera, musika sortzeko gizarte batek egiten duen hots--altueren hautaketak musikaren eta gizartearen kultura-kokapena ere adierazten du.

**b)** Hots kopurua fisiologikoki mugatua da.

Elektronikaren bidez bereiz daitezkeen hots-altueren kopurua izugarri handia da. Praktikan ez du mugarik. Alabaina, gizakiok ditugun fisiologia-gaitasunen bidez ezin ditugu entzun, ezin ditugu bereizi eta ezin ditugu kantatu edo jo soinu horiek guztiak.

Hori dela eta, hots-altuera kopuru txiki bat besterik ez dugu erabiltzen gure musikan: gure kulturan usadiozkoa den hots kopurua, gure entzumenak atzeman ditzakeenak, gure ahots-kordek eta gure musika-tresnek sor ditzaketenak. Hots--altuera horiei guztiei berezko izena ematen diegu eta horrela identifikatzen ditugu idatzietan eta musikaren interpretazioan.

## 2.2. Notak eta goranzko eta beheranzko hots-mugimenduak.

### 2.2.1. Noten definizioa.

*Notak hots-altuera zehatzak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak dira.*

[4] Gaur egun era askotako musika-tresnak elkartzeko joera dago kultura-kontsumoan eta, hala, gero eta gutxiago erabiltzen dira musika-tresnetan afinatze tenperatuarekin bat egiten ez duten akordatze-sistemak. Gertaera garrantzitsua da musika-tresna baten akordatze-sistema aldatzea. Musika-tresna baten afinazioa aldatzeak musika-tresna horren kokapen sozialean aldaketak gertatu direla adierazten du eta musikariak jakin behar du hori. Jakin behar du lehengo afinatze-sistema landa-eremuaren adierazlea dela; oro har, kontsumo gutxikoa eta nahasketa gutxiko objektuen gizarte-eremua, normalean beste garai historiko bati dagokiona. Sistema tenperatuan akordatzeak, aldiz, musika-tresna hori musika garaikidean kokatzeko borondatea adierazten du eta musika-tresna hori dagoeneko ez da landa-eremuko ordezkaria, hiriko musika-adierazpen garaikidea baizik.

**Hotsen goranzko eta beheranzko mugimendua eta nota-eskailerak**

*Nota-eskailera edo eskala, kantu batean agertzen diren nota nagusien edo organikoen zerrenda da eta konposizioaren ardatza den* ***tonu-nota*** *izenekoan hasi eta amaitzen da.* Nota-eskaileran zazpi nota biltzen dira normalean eta behetik gorako edo alderantzizko norabidean zerrendatzen dira, beti ordena berean, notek adierazten dituzten hots-altueren arabera. Zerrendaren norabidea behetik gorakoa denean **goranzkoa** dela diogu; haatik, zerrendaren norabidea goitik beherakoa denean **beheranzkoa** dela esaten dugu.

Kantu- edo musika-adierazpen batean biltzen diren notak adierazteko edo erakusteko erabiltzen dira aipatutako nota-eskailerak. Ez da derrigorrezkoa kantu batean agertzen diren nota guztiak nota-eskailera batean agertzea, baina bai konposizio horretan nagusiak edo organikoak direnak[5].

**2.2.2. Noten izenak.**

Hotsen altuera izendatzeko zazpi hots-izen edo nota erabiltzen ditugu. Ondoko zazpi hauek dira, goranzko nota-eskaileran jarrita eta DO notatik hasita: DO, RE, MI, FA, SOL, LA, SI (DO)[6].

(DO)
SI
LA
SOL
FA
MI
RE
DO

Nota-eskailerak nota batekin hasi eta nota berarekin bukatzen dira normalean. Hala, aurreko nota-eskaileran DO nota da lehena eta azkena, nota baxuena eta nota altuena.

Beheranzko norabidean jarrita eta DO notatik abiatuta, honela izendatzen ditugu beheranzko nota-eskailera eratzen duten zazpi notak: DO, SI, LA, SOL, FA, MI, RE, (DO).


DO
SI
LA
SOL
FA
MI
RE
(DO)

[5] Adibide bat jartzearren, irudika dezagun margolari batek koadro batean erabiltzen dituen kolore nagusiak kristalezko poteetan jartzen dituela, nabarmenena den koloretik abiatuta, jendeak ikus ditzan. Hor kolorezko "eskailera" bat izango genuke. Bada, antzekoa da nota-eskaileren bidez egiten duguna: kantu- edo musika--adierazpen batean berezkoak diren nota nagusiak edo organikoak erakusten ditugu, tonu-notatik abiatuta.

[6] Amerikar Estatu Batuetako eta haren eraginpeko musikan alfabetoko hizkiak erabiltzen dira hots-altuerak izendatzeko: A = LA, B = SI, C = DO, D = RE, E = MI, F = FA eta G = SOL; Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan DO notari UT izena ere ematen zaio; azkenik, Alemanian alfabetoko notatzea ere erabiltzen dute; alabaina, haien notatzean H hizkiak SI naturala adierazten du eta B hizkiak SI beheratua adierazten du.

Arestian adierazi dugun bezala, kantu- edo musika-adierazpen bat eratzen duten notak grafikoki adierazteko erabiltzen dira nota-eskailerak. Askotan, baina, kantu baten eraketan zortzi notako nota-eskailera hori gainditzen duten notak agertzen dira: horiek baino hots altuagokoak edo baxuagokoak ordezkatzen dituztenak. Nola konpontzen da arazo hori? Bada, nota-eskailera bat bukatzen denean beste bat gehitzen da; gero, nota-eskailera horren ondoren beste bat gehitzen da eta horren ondoren beste bat eta abar. Nota-eskailera hori behar hainbat aldiz errepika daiteke goranzko edo beheranzko norabidean.

Ikus dezagun hurrengo adibidea, nota-eskailera goranzko norabidean jarrita:




**2. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** DO notatik abiatuta, goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatzea.

**b)** DO notatik abiatuta goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatzea, FA nota kantatu gabe utziz.

**c)** DO notatik abiatuta goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatzea, SOL nota kantatu gabe utziz.

**d)** DO notatik abiatuta goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatzea, irakasleak adierazten duen nota kantatu gabe utziz.

**e)** Aurreko ariketen aurkakoa. Irakasleak goranzko eta beherazko nota--eskailerak kantatuko ditu eta une batean keinu bat egingo du. Une horretan irakasleak kantatu gabe utziko du nota bat eta ikasleek nota hori kantatu egin beharko dute.

# 3. Tonua, tonuerdia eta noten arteko altuera-tarteak.

## 3.1. Tonua eta tonuerdia.

Nota-eskaileretan segidan doazen nota guztien arteko altuera-tartea ez da berdina: nota batzuen arteko altuera-tartea handiagoa da beste batzuen artekoa baino. Bada, altuera-tarte horiek neurtzeko **tonu** eta **tonuerdi** altueren neurri--unitateak erabiltzen dira.

**Tonua**


***Tonua*** *noten arteko altuera-tartea neurtzeko erabiltzen den neurri-unitatea da.*

**Tonuerdia**

***Tonuerdia*** *tonuaren altuera-tartearen erdia adierazten duen neurri--unitatea da.*

### 3.1.1. Nota-eskaileran, segidan agertzen diren noten arteko altuera-tarteak.

Nota-eskaileran segidan doazen noten arteko altuera-tartea honako hau da:




**3. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ikasleek goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatu behar dituzte RE notatik abiatuta.

**b)** Ikasleek goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatu behar dituzte RE notatik abiatuta eta SOL nota kantatu gabe utziz.

**c)** Ikasleek goranzko eta beheranzko nota-eskailerak kantatu behar dituzte RE notatik abiatuta eta LA nota kantatu gabe utziz.

**d)** Aurreko "**a**", "**b**" eta "**c**" adibideak errepikatuko dira nota-eskailerak FA, SOL, LA eta MI notetatik abiatuta eta irakasleak adierazten dituen notak kantatu gabe utziz.

e) Irakasleak goranzko eta beherazko nota-eskailerak kantatuko ditu eta une batean keinu bat egingo du. Une horretan irakasleak nota bat utziko du kantatu gabe eta ikasleek nota hori kantatu beharko dute. Nota-eskailerak DO, RE, FA, SOL, LA eta MI notetatik abiatuko dira.

# 4. Denbora-ikurrak (I): Hots-ikurrak.

## 4.1. Denbora-ikurren definizioa.

***Denbora-ikurrak*** *hotsen edo isiluneen iraupenak zehazten dituzten zeinuak dira.*

Hots-denborak adierazten dituzten denbora-ikurrak hots-ikur izenez izendatzen ditugu; aldiz, isilik egon behar dugun denbora adierazten duten denbora-ikurrak isilune-ikur izenez izendatzen ditugu.

## 4.2. Hots-ikurrak.

***Hots-ikurrak*** *hotsen iraupena adierazten duten zeinuak dira eta bi musika--parametro adierazten dituzte aldi berean:*

**a)** Boslerrokoan duen kokapenaren arabera, hots-ikurrak hots-altuera edo nota adierazten du.

**b)** Zeinuak hartzen duen itxura edo forma dela bide, hots-ikurrak nota bati dagokion iraupen-denbora adierazten du; hau da, hots-ikur bat kantatuz edo musika-tresna joz pasatu behar dugun denbora.

**Hots-ikurren izenak eta formak**

Beren itxuraren edo formaren arabera, hots-ikurrek honako izen hauek izan ditzakete:

- **Borobila**, hutsik dagoen borobil baten forma hartzen duena[7] ( 𝅝 ).
- **Zuria**, borobil marradun baten forma hartzen duen hots-ikurra da[8] ( 𝅗𝅥 ).
- **Beltza**, puntu marradun baten forma hartzen duena[9] ( ♩ ).
- **Kortxea**, gako bat duen beltzaren itxura hartzen duen hots-ikurra da[10] ( ♪ ).
- **Kortxeaerdia** gako bikoitza duen hots-ikurra da[11] ( 𝅘𝅥𝅯 ).
- **Fusa,** kortxea bezalakoa da, baina, bere gakoa hirukoitza da ( 𝅘𝅥𝅰 ).
- **Fusaerdia**, kortxea bezalakoa da, baina, bere gakoa laukoitza da ( 𝅘𝅥𝅱 ).

Hots-ikur horien guztien zirkulu eta puntuei **burua** deitzen zaie.

Hots-ikurren marrari **nota-marra** edo **plika** deitzen zaio.

Denbora-ikur horietako batzuek duten marratxo kurbatuari **kakoa** deitzen diogu. Kortxea izeneko hots-ikurrarena kako soila da, kortxeaerdi izenekoarena kako bikoitza da, fusarena kako hirukoitza da eta fusaerdiarena kako laukoitza da.

---

[7] Denbora-ikurraren esangura erreparatuz borobil hots-ikurra "**luzea**" ere izenda daiteke.
[8] Denbora-ikurraren esangura erreparatuz zuri hots-ikurra "**luzerdia**" ere izenda daiteke.
[9] Denbora-ikurraren esangura erreparatuz beltz hots-ikurra "**ertaina**" ere izenda daiteke.
[10] Denbora-ikurraren esangura erreparatuz kortxea hots-ikurra "**laburra**" ere izenda daiteke.
[11] Denbora-ikurraren esangura erreparatuz kortxeaerdi hots-ikurra "**laburrerdia**" ere izenda daiteke.

### Hots-ikurrek adierazten dituzten denborak

Hots-ikurren iraupena neurtzeko denbora-unitate bat behar da, besteentzako erreferentzia-puntu izango dena. Bada, denbora-ikurren erreferentzia edo denbora--unitatea **borobil** izeneko hots-ikurra da eta bat (1) zenbakiaren bidez adierazten da.

Borobila abiapuntutzat hartuta, hots-ikurrek adierazten dituzten hots--iraupenak honako hauek dira:

| | | |
|---|---|---|
|  | **Borobila**, hots-iraupen handiena adierazten duen denbora-ikurra da eta gainerako denbora-ikurren denbora adierazteko unitate, erreferentzia edo abiapuntutzat jotzen da; **bat** zenbakiaren bidez adierazten da (1). | $\frac{1}{1}$ |
|  | **Zuria**, borobilaren hots-iraupenaren erdia irauten duen denbora-ikurra da eta **bi** zenbakiaren bidez adierazten da (2). | $\frac{1}{2}$ |
|  | **Beltza**, borobilaren hots-iraupenaren laurdena irauten duen hots-ikurra da eta **lau** zenbakiaren bidez adierazten da (4). | $\frac{1}{4}$ |
|  | **Kortxea**, borobilaren hots-iraupenaren zortzirena irauten duen hots-ikurra da eta **zortzi** zenbakiaren bidez adierazten da (8). | $\frac{1}{8}$ |
|  | **Kortxeaerdia,** borobilaren hamaseirena irauten duen hots--ikurra da eta **hamasei** zenbakiaren bidez adierazten da (16). | $\frac{1}{16}$ |
|  | **Fusa,** borobilaren hogeita hamabirena irauten duen hots--ikurra da eta **hogeita hamabi** zenbakiaren bidez adierazten da (32). | $\frac{1}{32}$ |
|  | **Fusaerdia,** borobilaren hirurogeita laurdena irauten duen hots-ikurra da eta **hirurogeita lau** zenbakiaren bidez adierazten da (64). | $\frac{1}{64}$ |

### Hots-ikurren arteko iraupen-harremanak

| | |
|---|---|
| () **Borobilaren** hots-iraupenean sartzen dira: | **Bi zuri**<br>**Lau beltz**<br>**Zortzi kortxea**<br>**Hamasei kortxeaerdi**<br>**Hogeita hamabi fusa**<br>**Hirurogeita lau fusaerdi** |
| () **Zuriaren** hots-iraupenean sartzen dira: | **Bi beltz**<br>**Lau kortxea**<br>**Zortzi kortxeaerdi**<br>**Hamasei fusa**<br>**Hogeita hamabi fusaerdi** |
| | **Bi kortxea**<br>**Lau kortxeaerdi** |

| | |
|---|---|
| ( ♩ ) **Beltzaren** hots-iraupenean sartzen dira: | **Zortzi fusa**<br>**Hamasei fusaerdi** |
| ( ♪ ) **Kortxearen** hots-iraupenean sartzen dira: | **Bi kortxeaerdi**<br>**Lau fusa**<br>**Zortzi fusaerdi** |
| ( 𝅘𝅥𝅯 ) **Kortxeaerdiaren** iraupenean sartzen dira: | **Bi fusa**<br>**Lau fusaerdi** |
| ( 𝅘𝅥𝅰 ) **Fusaren** hots-iraupenean sartzen dira: | **Bi fusaerdi** |

Kortxea, kortxeaerdi, fusa edo fusaerdi batzuk jarraian kokatzen direnean, beste modu batez idazten dira sarritan. Idazkera horretan hots-ikur horien kakoak marra horizontalek ordezkatzen dituzte: kortxearen kako bakarrari marra bat dagokio; kortxeaerdiaren kako bikoitzari marra bikoitza dagokio; fusaren kako hirukoitzari marra hirukoitza dagokio; eta, azkenik, fusaerdiaren kako laukoitzari marra laukoitza dagokio. Hots-ikur horiek elkarrekin idazten dira irakurketa eta denboraren interpretazioa errazteko.

**Kortxeak:**

**Kortxeaerdiak:**

**Fusak:**

**Fusaerdiak:**

Multzo horietan hots-luzera ezberdineko hots-ikurrak ager daitezke elkarrekin. Hona hemen adibide batzuk:


**4. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ikasleek ondoko hots-ikurren gainean bakoitzari dagokion izena idatziko dute.


**b)** Ondoko hots-ikurren izenen gainean, ikasleek bakoitzari dagokion hots-ikurra marraztuko dute.

Fusaerdia kortxea zuria beltza borobila

**c)** Ondoren gakoz idatziriko hots-ikur batzuk agertzen dira; ikasleek hots-ikur berberak idatziko dituzte marra horizontalak erabiliz.



**d)** Ondoren marra horizontalez idatziriko hots-ikur batzuk agertzen dira; ikasleek hots-ikur berberak idatziko dituzte kakoak erabiliz.



**e)** Ondoren iraupen ezberdineko hots-ikur batzuk agertzen dira binaka jarrita. Ikasleek hots-ikur horien arteko iraupen-harremanak adieraziko dituzte "**a**" eta "**b**" adibideetan egiten den bezala.

**Adibideak:**

**a)** 𝅘𝅥𝅯 / 𝅗𝅥 **:** Zuri bati dagokion denbora berean zortzi kortxeaerdi sartzen dira. Beraz, kortxeaerdiaren iraupena zuriaren zortzirena da.

**b)** 𝅘𝅥𝅯 / 𝅝 **:** borobil bati dagokion denbora berean, zortzi kortxea sartzen dira. Beraz, kortxearen iraupena borobilaren zortzirena da.

**1.** - 𝅘𝅥𝅯 / 𝅗𝅥**:**

**2.** - 𝅘𝅥𝅯 / 𝅗𝅥**:**

**3.** - 𝅗𝅥 / 𝅝 **:**

**4.** - 𝅘𝅥𝅯 / 𝅝 **:**

# 5. Denbora-ikurrak (II): Isilune-ikurrak.

## 5.1. Isilune-ikurren definizioa.

*Isilune-ikurrak isiluneen iraupena zehazten duten denbora-ikurrak dira.*

### 5.1.1. Isilune fisiologikoak eta isilune adierazgarriak.


Musikan isilune guztiak ez dira berdinak. Antropologiaren, soziologiaren eta musikaren ikuspegitik, isiluneen esangura adierazpen-asmoaren araberakoa da eta, hala, isiluneak bi multzotan sailkatzen ditugu: isilune fisiologikoak eta isilune adierazgarriak.

**Isilune fisiologikoak**

*Arnasketa egitean sortzen diren isiluneak dira isilune **fisiologikoak**, airea hartzean egiten ditugunak. Arnasa hartzeko erabiltzen dugun denborari **hatsaldia** deitzen diogu.*

Gure gorputzak fisiologia-behar batzuk ditu eta horien artean airea arnastea da lehena. Airea hartzen dugun bitartean ezin dugu hitz egin edo kantatu; beraz, airea hartzen dugun bitartean isilik egon behar dugu. Isilune horiek dira, hain zuzen ere, isilune fisiologikoak.

Musikan isilune fisiologikoek ez dute aparteko esangurarik, ez bada pertsonaren edo musika-tresna jotzailearen egoera: urduritasuna, egoera fisikoa, itomena...; baina esanguratsua da musika-adierazpen batean isilune hauek eta ez besteak egotea. Kantu mota batzuetan arnasketaren isiluneak soilik erabiltzen dira. Kantu gregoriano izenekoan beti, kantu herrikoietan gehienetan eta, orokorrean, kantu komunitarioan edo taldekoetan eta espezializazio gutxiko kantuetan, isilune fisiologikoak erabiltzen dira salbuespenak salbu. Isilune fisiologikoak boslerrokoaren gainean kokatutako apostrofo edo kakotx baten bidez adierazten dira[12]:



**Isilune adierazgarriak**

*Isilune adierazgarriak, musika berezituetan erabiltzen dira, ez daude arnasketaren menpe, musikako adierazpen-beharrengatik jartzen dira eta, adierazpen-beharren arabera, hainbat eratako iraupenak izan ditzakete.*

Batzuetan, airea hartzeko beharrik izan gabe isiluneak egiten dira kantuan eta musikan. Beraz, isilune horiek musikakoak diren arrazoiengatik egiten ditugu eta ez fisiologiako beharren arrazoiengatik; musika-adierazpenari nolabaiteko adiera emateko edo nolabaiteko zentzua emateko erabiltzen ditugu. Beraz, arrazoi horiek direla bide, isilune horiek isilune adierazgarri izenez izendatzen ditugu.

[12] Kantu-bilduma batzuetan, musikariek iraupen zehatza adierazten duten isilune-ikurrak erabili dituzte isilune fisiologikoak azaltzeko. Bada, hori errakuntza handia da eta gaurko musikariek jakin behar dute isilune horiek isilune fisiologiko legez interpretatu behar direla (ikus Azkue, Resurrección María de: "Cancionero popular vasco", La Gran Enciclopedia Vasca arg., Bilbo, 1968).

### Isilune adierazgarrien izenak eta formak

Hots-ikurren antzera, isilune-ikurrak boslerrokoan eta lerro eta lerroarte gehigarrietan kokatzen dira eta, hartzen duten itxuraren edo formaren arabera, izen bat edo beste berenganatzen dute. Izen horiek, alabaina, hots-ikurretatik hartzen dituzte. Hona hemen isilune adierazgarrien ikur-izenak eta formak:

**Borobilaren isilunea:** 

**Zuriaren isilunea:** 

**Beltzaren isilunea:** 

**Kortxearen isilunea:** 

**Kortxeaerdiaren isilunea:** 

**Fusaren isilunea:** 

**Fusaerdiaren isilunea:** 

### Isilune adierazgarrien ikurrek adierazten dituzten denborak


Ikusi dugunez, isilune-ikurren kopurua hotsen denborarako aipatu dugun ikur kopuruaren bertsua da; hots-ikur bakoitzari denbora bereko isilunea adierazten duen isilune-ikurra dagokio; isilune-ikurrek hots-ikurren denbora-iraupenak berenganatzen dituzte. Honako hauek dira isilune-ikurrek adierazten dituzten denborak:

| | | |
|---|---|---|
|  | **Borobil isilune-ikurra** iraupen handiena adierazten duen isilune-ikurra da eta gainerako isilune-ikurren denbora adierazteko unitate, erreferentzia edo abiapuntutzat jotzen da; **bat** zenbakiaren bidez adierazten da (1). | $\frac{1}{1}$ |
|  | **Zuri isilune-ikurra,** borobil isilune-ikurraren erdia irauten duen isilune-ikurra da eta **bi** zenbakiaren bidez adierazten da (2). | $\frac{1}{2}$ |
|  | **Beltz isilune-ikurra,** borobil isilune-ikurraren laurdena irauten duen isilune-ikurra da eta **lau** zenbakiaren bidez adierazten da (4). | $\frac{1}{4}$ |
|  | **Kortxea isilune-ikurra,** borobil isilune-ikurraren zortzirena irauten duen isilune-ikurra da eta **zortzi** baten bidez adierazten da (8). | $\frac{1}{8}$ |
|  | **Kortxeaerdi isilune-ikurra,** borobilaren isilune-ikurraren hamaseirena irauten duen isilune-ikurra da eta **hamasei** zenbakiaren bidez adierazten da (16). | $\frac{1}{16}$ |
|  | **Fusa isilune-ikurra,** borobilaren isilune-ikurraren hogeita hamabirena irauten duen isilune-ikurra da eta **hogeita hamabi** zenbakiaren bidez adierazten da (32). | $\frac{1}{32}$ |

| | | |
|---|---|---|
|  | **Fusaerdi isilune-ikurra,** borobilaren isilune-ikurraren hirurogeita laurdena irauten duen isilune-ikurra da eta **hirurogeita hamalau** zenbakiaren bidez adierazten da (64). | $\frac{1}{64}$ |

**5. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ikasleek, ondoko isilune-ikurren gainean, bakoitzari dagokion izena idatzi behar dute.



**b)** Ondoko isilune-ikurren izenen gainean, ikasleek bakoitzari dagokion isilune-ikurra marraztu behar dute.

Borobilarena Kortxeaerdiarena Beltzarena Fusaerdiarena Zuriarena

**c)** Ikasleek musika-partitura batean agertzen diren isilune-ikurrak atzeman beharko dituzte.

**d)** Entzunaldiak:

**1.-** Isilune fisiologikoak bakarrik dituzten kantu-adibideak:

- *Haltzak ez du bihotzik*[13].

- *Urtsua zazpi leiho*[14].

- Isilune adierazgarririk gabeko antzeko kantu herrikoiak.

- *"Asperges me", "Kyrie", "Gloria"* eta antzeko kantu gregorianoak[15].

**2.-** Isilune adierazgarriak dituzten kantu-adibideak:

- Hirietako hainbat kantu sinkopatu, modako euskal kantuak barne.

---

[13] Ikusi *Haltzak ez du bihotzik,* Sallaberry, J.-D.-J., *Chants populaires du Pays Basque. Paroles et musique originales,* Maule, 1870, 149. or.; 1999 urtean Klonikus argitaletxeak argitaratu du fotokopiatuta (ISBN: 2-84578-009-5). Ahots askotariko eta ahots bakarreko hainbat bertsio dago kantu honi buruz. Ahots bakarrean eta *ad libitum* grabaturikoak gomendatzen ditut (Jean Mixel Bedaxagar, Niko Etxart, Pierrre Oihenart, Benito Lertxundi....). Beste iturri batzuk ezagutzeko ikusi Eusko Jaurlaritzaren Euskara Zerbitzuak argitaratutako *Kontrapas. 1950 aurreko kantuen eskola-katalogoa,* Gasteiz. 1998.

[14] Ikusi *Urtsua zazpi leiho,* Azkue, R. M., aip. ob., II. lib., 1057 or.). Denbora motelean kantatu behar da; nahi izanez gero, neurririk gabe ere kanta daiteke.

[15] Ikusi *Graduale triplex,* Solesmes Abadiak argitaratua, 1979 (Kantuak hiru idazkeratan agertzen dira; normalean Laon-go, Einsideln-engo eskuizkribuetan eta Vatikanoko argitalpenetan agertzen diren bezala). Grabazio gomendagarria *Cantate Dómino,* "Capella gregoriana Easo" (zuzendaria: Javier Irastorza), Elkar argitaletxea, 2001 (Lau CD-k osatzen dute kantu-bilduma eta liburuxka batean partiturak eta kantu gregorianoari buruzko azalpenak agertzen dira euskaraz, espainieraz, frantsesez eta ingelesez).

3. Irakasleak bi eratako kantuak kantatu edota entzunarazi behar ditu eta ikasleek kantuek agertzen dituzten isilune motak atzeman behar dituzte.

# 6. Nota-giltzak.

## 6.1. Nota-giltzaren definizioa.

*Nota-giltza boslerrokoaren hasieran jartzen den eta noten edo hots-ikurren kokapena finkatzen duen zeinua da.*

Nota-giltzaren arabera, lerro edota lerroarteetan kokatzen diren hots-ikurrek nota-izen bat edo beste berengana dezakete. Lerro batean jartzen dugun ikur bat eta bera, adibidez, DO, RE, MI, FA, SOL, LA edo SI nota izan daiteke, boslerrokoaren hasieran jartzen dugun nota-giltzaren arabera.

## 6.2. SOL, DO eta FA nota-giltzak.

Gure idazkera-sisteman hiru dira erabiltzen diren nota-giltzen izenak: SOL nota-giltza, antzina "G" hizkia zena eta gaur egun "G" apaindu baten itxura hartzen duena; DO nota-giltza, antzina "C" hizkia zena eta gaur egun forma berezi bat hartzen duena; eta FA nota-giltza, antzina "F" hizkia zena eta gaur egun beste forma bat hartzen duena.

**SOL nota-giltza:** 𝄞

**FA nota-giltza:** 𝄢

**DO nota-giltza:** 𝄡

Nota-giltza horiek hainbat lerrotan kokatzen dira eta horrela sortzen dira erabiltzen ditugun zazpi nota-giltzak:

- Laugarren lerroko FA nota-giltza.
- Hirugarren lerroko FA nota-giltza.
- Laugarren lerroko DO nota-giltza.
- Hirugarren lerroko DO nota-giltza.
- Bigarren lerroko DO nota-giltza.
- Lehen lerroko DO nota-giltza.
- Bigarren lerroko SOL nota-giltza.

Kokatzen diren lerroen arabera, nota-giltzek beren nota-izena eta kantatzeko altuera ematen dizkiete lerro horietan kokatzen diren hots-ikurrei. Bigarren lerroan SOL izeneko nota-giltza jartzen badugu, adibidez, bigarren lerroan jartzen den hots-ikurrari SOL izena dagokio; bigarren lerroan DO izeneko nota-giltza jartzen badugu, bigarren lerroan jartzen den hots-ikurrari DO izena dagokio; laugarren lerroan FA izeneko nota-giltza jartzen badugu, laugarren lerroan jartzen den hots-ikurrari FA izena dagokio eta abar.

Nota baten kokapena jakin ondoren, nota horretatik abiatuta eta goranzko eta beheranzko nota-eskaileren ordena jarraituz, gainerako nota guztien kokapena ondorioztatzen dugu.

Gizonezko- eta emakumezko-ahots guztiak boslerrokoan idazteko sortu ziren nota-giltzak. Hala ere, hori ezinezkoa zenez, lerro eta lerroarte batzuk gehitu behar izan zituzten idazkera hori egin ahal izateko. Nota-giltza hau edo hura erabiliz edota, kantuan zehar, nota-giltzak aldatuz, kantu baten nota guztiak edo ia guztiak boslerrokoaren barruan idatz daitezke.


## 6.3. Akustika-adierazlea eta diapasoia edo akordatze-nota.

*Akustika-adierazlea edo indize akustikoa hotsen altuera finkoa adierazteko erabiltzen den zenbakikuntza da.* Abiapuntua erreferentzia-nota edo diapasoia da $LA^3$ gure artean[16]. $LA^3$ bigarren lerroko SOL nota-giltzan bigarren lerroartean kokatzen da. Organo tradizionalean bi oineko luzera duen hodiak egiten du diapasoiko LA notaren[17] hotsa.

Akustika-adierazleak zenbakiak erabiltzen ditu musika klasikoan egin ahal diren nota-eskailera guztiak adierazteko. Diapasoiko $LA^3$ nota biltzen duen nota--eskailera da akustika-adierazlearen abiapuntua; hortik abiatuta, nota-eskailera guztiak hurrenkeran zenbatzen dira eta, hala, nota-eskailera bakoitzari zenbaki bat dagokio. Hots-altuera guztiak deskriba daitezke boslerrokoan notak idatzi beharrik izan gabe. SI nota-izenaren ondoan 4 zenbakia jartzen bada goi-indizean, $SI^4$ adibidez, nota hori laugarren nota-eskailerakoa dela adierazten da. Akustika--adierazleetan nota-eskailera guztiak zenbatzen dira DO notan hasita, SI notan amaitzen dira eta zenbaki bera erabiltzen da DO eta SI arteko nota guztiak azaltzeko.

## 6.4. Nota-giltzen arteko altuera-harremana.

Nota-giltzen arteko harremana grafikoki ikusteko, nota bat eta bera idatzi dugun nota-giltza guztietan nota horri zenbaki bat ematen diogu: $DO^3$. Nota-giltza aldatu ahala notaren kokapena aldatzen bada ere, hots-altuera bertsua adierazten du kasu guztietan. Laugarren lerroko FA nota-giltzan goiko lehen lerro gehigarrian dagoen notak eta bigarren lerroko SOL nota-giltzan beheko lehen lerro gehigarrian dagoenak, adibidez, hots-altuera berbera adierazten dute.





[16] 20 graduko tenperaturan 440 hertziok edo dardara bikoitzek eragiten duten nota da $LA^3$. Altuera hori diapasoiari buruzko Nazioarteko Bigarren Batzarrean onartu zen, Londresen, 1939an. Munduko hainbat tokitan, baina, diapasoiko LA nota hori akustika-adierazlearen lehen zortzidunari dagokio eta 1 zenbakia jartzen diote. Beste musikari batzuentzat, berriz, diapasoiko LA nota akustika-adierazlearen 4. edo 5. zortziduna da eta, hala, zenbaki horien bidez adierazten dute.

Antzinako musika jotzeko baxuago akordatzen dira notak, 416 hertziotan normalean.

[17] Ingalaterrako oina = 30,48 cm., Frantziako oina = 33 cm. eta Gaztelako oina 28 cm.


**6. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa:**

Jarraian datorren adibidean nota-giltza bat agertzen da boslerrokoan. Ondoren, nota bat, nota horren izena eta nota-giltzaren izena daude idatzita.

Adibidea: 


DO = Bigarren lerroko DO nota-giltza.

**Ariketa:** Aurreko adibidearen antzera, hurrengo ariketan ikasleek nota--giltza bakoitzari dagokion erreferentzia-nota idatzi behar dute; ondoren, adibidean bezala, nota-izena eta nota-giltzaren izena ere idatzi behar dituzte.










# 7. Bigarren lerroko SOL nota-giltza.

## 7.1. Noten kokapena bigarren lerroko SOL nota-giltzan.


Nota guztiak, edozein denbora-ikur izanda ere, boslerrokoan eta haren inguruan kokatzen dira. Orokorrean, boslerrokoaren azpian kokatzen diren notek hots baxuak adierazten dituzte, boslerrokoaren erdialdean kokatzen diren notek hots-altuera ertainak adierazten dituzte eta boslerrokoaren gainean kokatzen direnek hots altuak edo goikoak adierazten dituzte.

Bigarren lerroko SOL nota-giltzan honako era honetan kokatzen dira notak:


**Lerroetan:**





**Lerroarteetan:**





**Lerro gehigarrietan**




**Lerroarte gehigarrietan:**




Horrela gelditzen dira nota guztiak, boslerrokoaren lerro, lerroarte eta lerro eta lerroarte gehigarrietan segidan eta goranzko bidean jarrita (SOL notatik abiatuta):



SOL la si do re mi fa SOL la si do re mi fa SOL la si do re


## 7.2. Graduak: gradu elkartuak, gradu bananduak eta graduen izenak.

Nota-eskaileretan agertzen diren noten ordena gradu izenez adierazten da[18]: Nota-eskaileraren lehenengo nota lehenengo gradua da, bigarren nota bigarren gradua, hirugarren nota hirugarren gradua, eta abar.

Kantu batean nota edo gradu horiek jarraian edo segidan ager daitezke ala alderantziz, bananduak edo bereiziak ager daitezke. Bada, jarraian agertzen diren graduak, gradu elkartu izendatzen ditugu; haatik, bananduak edo bereiziak agertzen direnak gradu banandu izendatzen ditugu.


### Gradu elkartuak

Goranzko edo beheranzko nota-eskaileran agertzen diren bezala, bi notak elkarren ondoan kokatuta agertzen badira, nota edo gradu elkartu izendatzen ditugu. Hurrengo boslerrokoaren tarte bakoitzean, gradu elkartuz lotzen diren bi notak agertzen dira.



### Gradu bananduak

Nota-eskaileran ez bezala, doinu batean agertzen diren notak elkarren ondokoak ez direnean, haien arteko harremana gradu bananduz egiten dela esaten dugu. Hurrengo boslerrokoaren tarte bakoitzean agertzen diren bi notak gradu bananduz lotzen dira.




[18] Beranduago ikusiko dugunez, nota-eskailera horietan biltzen diren notak tonu baten berezko notak izaten dira normalean. Tonu horretan organikoak direnak.

### Graduen izenak

Nota-eskailera batean biltzen diren graduek konposizioaren hots--ardatzarekin edo nota tonikoarekin lotzen dira eta, hala, berezko izena daukate normalean: I. gradua **tonu-nota** edo **nota tonikoa** da; II. gradua **tonu-notaren gainekoa** da[19]; III. gradua **gaineko mediantea** da[20]; IV. gradua **azpi-dominantea** edo **azpiko dominantea** da[21]; V. gradua **dominantea** edo **gaineko dominantea** da[22]; VI. gradua **azpiko mediantea** edo **azpi-mediantea** da; azkenik, VII. gradua **sentibera** da tonu-notatik tonuerdira dagoenean[23] (VII. gradua, besterik ez da, tonu-notatik tonu batera dagoenean).


### 7. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:

**a)** Behean jarritako "**a**" adibidean, lehen eta azken notak zeinu borobilez idatzi dira; nota horien artekoak puntu beltz batez idatzita agertzen dira; zenbatuta daude, eta nota horien guztien azpian beren izenak ere idatzita daude. Ikasleek gauza bera egin behar dute gainerako adibideetan: lehen eta azken noten artekoak puntu beltzez marraztu, notak zenbatu eta horien azpian dagozkien izenak idatziko dituzte.




[19] "Supertoniko" ere izendatzen da, baina gutxitan erabiltzen da.
[20] "Mediante" soila ere izendatzen da.
[21] "**Azpi-eragile**" ere izendatzen da.
[22] "**Eragile**" ere izendatzen da.
[23] "Sentsible" ere izendatzen da.

**b)** Behean jarritako boslerrokoetan bi nota jarri ditugu tarte bakoitzean. Boslerrokoaren azpian ikasleek nota horien arteko harreman mota adierazi behar dute: noten lotura gradu elkartuz egiten bada "**e**" batez adieraziko da; aldiz, gradu bananduz bada, "**b**" idatziko da.



**c)** Irakasleak nota-eskailera baten gradu-izenei buruzko galderak egingo dizkie ikasleei eta ikasleek asmatu beharko dute gradu bakoitzari dagokion izena.


# 8. Denbora-ikurrak (III):


# Lotura, puntua eta puntu bikoitza.

## 8.1. Lotura.

*Lotura, hots-ikurrak lotzen dituen zeinua da.*

Lotura-zeinua marra kurbatua da eta hots-ikurrek ordezkatzen dituzten denborak batzeko erabiltzen da; lotura hots-ikur baten burutik beste hots-ikur baten burura luzatzen da. Marra kurbatu horiek erabiliz, hainbat debora-ikurren denborak batzen dira eta horrela lortzen dira irregularrak diren denbora-iraupenak (taupada bat eta laurdeneko hots-iraupena, adibidez). Hona hemen horien adibide bi:

 = Borobilaren gehi beltzaren hots-iraupenak batuta.

 = Zuriaren gehi kortxearen hots-iraupenak batuta.

Jakina, isilune-ikurrak ez dira lotzen. Isilune irregularrak lortzeko nahikoa da behar diren isilune-ikurrak segidan idaztea.

## 8.2. Puntua.

*Puntuaren denbora-ikurra hots-ikurren edo isilune-ikurren denbora luzatzeko erabiltzen den zeinua da* (hots- edo isilune-ikurren ondoren jartzen da puntua).

### 8.2.1. Hots- eta isilune-ikur puntudunen iraupenak.

Puntu-zeinuak, hots- eta isilune-ikurrei berezkoa duten iraupenaren erdia gehitzen die. Denbora-ikur puntudunak dira puntu-zeinua duten notak. Hona hemen haien iraupenak:

 Borobil puntudunak: borobilak eta zuriak, biek batuta duten iraupena dauka.

 Borobil-isilune puntudunak: borobilak eta zuriaren isiluneak batuta duten iraupena dauka[24].

 Zuri puntudunak: zuriak eta beltzak, biek batuta duten iraupena dauka.

 Zuri-isilune puntudunak: zuriak eta beltzaren isiluneak batuta duten iraupena dauka.

 Beltz puntudunak: beltzak eta kortxeak, biek batuta duten iraupena dauka.

[24] Geroago ikusiko dugunez, batzuetan borobilaren isiluneak beste iraupen batzuk eduki ditzake.

𝅗𝅥. Beltz-isilune puntudunak: beltzak eta kortxearen isiluneak batuta duten iraupena dauka.

♪. Kortxea puntudunak: kortxeak eta kortxeaerdiak, biek batuta duten iraupena dauka.

𝅘𝅥𝅯. Kortxea-isilune puntudunak: kortxeak eta kortxeaerdiaren isiluneak batuta duten iraupena dauka.

𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯. Kortxeaerdi puntudunak: kortxeaerdiak eta fusak batuta duten iraupena dauka.

𝅘𝅥𝅯𝅘𝅥𝅯. Kortxeaerdi-isilune puntudunak: kortxeaerdiak eta fusaren isiluneak batuta duten iraupena dauka.


𝅘𝅥𝅰𝅘𝅥𝅰. Fusa puntudunak: fusak eta fusaerdiak batuta duten iraupena dauka.


𝅘𝅥𝅰. Fusa-isilune puntudunak: fusak eta fusaerdiaren isiluneak batuta duten iraupena dauka.

## 8.3. Puntu bikoitza.

Hots- edo isilune-ikur batek bi puntu ere eduki ditzake. Kasu horretan, bigarren puntuak lehenengo puntuak duen iraupenaren erdia gehitzen dio hots- edo isilune--ikurrari. *Denbora-ikur puntubidunak dira puntu bikoitza duten notak*: borobil puntubidunak, borobila, zuria eta beltza, hirurak batuta duten denbora dauka, adibidez.

**Hots- eta isilune-ikurren iraupena puntu bikoitzarekin:**





**8. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ondoan hots-ikur puntudun batzuk agertzen dira; "**a**" adibidearen antzera, ikasleek denbora-iraupen berdinak idatziko dituzte loturak erabiliz.

**a)** adibidea : 



**b)** Ondoan isilune-ikur puntudun batzuk agertzen dira; "**a**" adibidearen antzera, ikasleek isilune-iraupen berdinak idatziko dituzte isilune-ikurrak erabiliz.

**a)** adibidea : 



# 9. Musika-diskurtsoaren denbora (I):

# Denbora, neurria, taupada eta banalerroa.

## 9.1. Denbora-kontzeptua

Musika-diskurtsoa denboran gauzatzen da eta, hala, normala da musika eta denbora lotzen dituzten sentimen, iritzi, arau eta adigai ugari egotea; baita hainbat eta hainbat musika mota berezkoa duten denboraren arabera sailkatzea ere. Hori dela eta, horri buruz arituko gara ikasgai honetan eta hurrengoetan.

**Kultura- edo gizarte-denbora**

Musika-denborak tokian tokiko eta garaian garaiko gizarteek denborari buruz duten ikuspegia edo sentimena islatzen du, era orokorrean. Beraz, denbora--kontzeptuak izari edo alderdi ugari biltzen ditu eta denak ez dira musikalak edo fisikoak, gizarte-harremanak eta gizartearen balioak ere islatzen dira musika--adierazpen baten denbora-antolaeran. Musika-adierazpen baten taupadetan eta esaldikatze mota bakoitzean gizarteak munduarekiko duen ikuspegia ikus daiteke. **Kultura-denbora** edo **gizarte-denbora** izendatzen dugu ikuspegi hori, gizarte batetik bestera, garai batetik bestera eta toki batetik bestera aldatzen dena: landa--gizarte tradizionalaren bizimodua motela da hiri handiko bizimodu bizkorrarekin alderatzen badugu; XIV. mendeko gizartea motela zen, orokorrean, XXI. mendeko gizartearekin alderatzen badugu... Gizarte-denboraz eta denbora horrek musikan duen eraginaz ez dago aparteko kontzientziarik musikari askoren artean; hala ere, denbora hori musika-adierazpenaren osagai bereiztezina da eta bai soziologiaren ikuspegitik eta baita antropologiaren, semiologiaren eta musika--teknikaren ikuspegitik ere, kontuan hartu beharrekoa.

**Kanpoko eta barneko denbora.**

Hasteko, musika-diskurtsoaren azterketan bi denbora mota bereizten ditugu: kanpoko denbora eta barneko denbora.

**a) Kanpoko denbora:** *kontzeptu honek musika-adierazpen batek irauten duen denbora osoa adierazten du, hamazazpi minutu, adibidez.* Denbora oso hori adierazteko ***adigai*** hitza ere erabiltzen da.

**b) Barneko denbora:** *Barneko denbora konposizio oso baten barne--antolaera deskribatzeko erabiltzen den denbora da. Horrek azaltzen digu konposizio baten denbora osoa hainbat tamainatako adierazpen-unitatetan banatzen dela eta banaketa horrek konposizioaren* ***forma*** *edo* ***eitea*** *ondorioztatzen duela* (***egitura*** eta ***gestalt*** hitzak ere erabiltzen dira konposizio baten barneko denboraren banaketa adierazteko).

Diskurtso literarioetan bezala, musika-diskurtsoetan ere nolabaiteko esaldikatzea dago; hau da, konposizioaren denbora ez da esangurarik gabeko hitz-segida; konposizioaren denbora hainbat iraupen eduki ditzaketen adierazpen--unitate edo zatietan banatzen da. Beraz, konposizio baten denbora, denbora antolatua da. Musika-estiloaren edota musikaren antolakuntza motaren arabera, adierazpen-unitate batzuk luzeak izaten dira; gero, adierazpen-unitate horien barruan luzera ertaina duten beste adierazpen-unitate batzuk agertzen dira;

ondoren, aurreko adierazpen-unitate horren barruan laburragoak diren beste adierazpen-unitate batzuk agertzen dira, eta abar. Azkenik, adierazpen horiek guztiek ondorioztatzen dute konposizioaren forma edo eitea.

Adierazpen-unitate horiek izendapen ugari jasotzen dituzte, musika motaren arabera eta musika aztertzeko erabiltzen den teknikaren arabera. **Fuga** izeneko konposizioaren adierazpen-unitateak izendatzeko erabiltzen diren izenak, adibidez, ez dira **sonata** izeneko konposizioaren edo kantu herrikoi baten adierazpen-unitateak izendatzeko normalean erabiltzen direnak. Hori dela bide, adierazpen-unitateak era neutroan izendatzeko hizkiak eta zenbakiak erabiltzen dituen metodo bat erabiltzea gomendatzen dugu[25]. Horren arabera, adierazpen--unitate handiak sailkatzen dira lehenengo eta behin (adierazpen-unitate nagusiak); gero, horien barneko adierazpen-unitate ertainak sailkatzen dira (adierazpen-unitate ertainak); ondoren, horien barruko musika-tarte txikiak sailkatzen dira (adierazpen-unitate laburrak) eta abar. Horrela jarraituz, notak banan-banan gogoan hartzeraino irits daiteke musikaren azterlana. Ikus dezagun hurrengo taula, adibide gisa, segundotan adierazita (eskuarki neurrietan sailkatzen dira adierazpen-unitateak eta ez dira beti erregularrak, adibidean jarri dugun eran; hala ere, adibidean erregulartasuna eta segundoak erabili ditugu azalpena hobeto uler dadin):

| **Adierazpen-unitate nagusiak:** | **Adierazpen-unitate ertainak:** | **Adierazpen-unitate laburrak:** | **Adierazpen-unitate oso laburrak:** |
|---|---|---|---|
| **1** (1-30 segundo) | **1.1.** (1-15 segundo) | **1.1.1.** (1-8 segundo) | **1.1.1.1.** (1-4 segundo) |
| | | | **1.1.1.2.** (5-8 segundo) |
| | | **1.1.2.** (9-15 segundo) | **1.1.2.1.** (9-12 segundo) |
| | | | **1.1.2.2.** (13-15 segundo) |
| | **1.2.** (16-30 segundo) | **1.2.1.** (16-23 segundo) | **1.2.1.1.** (16-19 segundo) |
| | | | **1.2.1.1.** (19-23 segundo) |
| | | **1.2.2.** (24-30 segundo) | **1.2.2.1.** (24-30 segundo) |
| **2** (30-60 segundo) | **2.1.** (31-45 segundo) | **2.1.1.** (31-38 segundo) | **2.1.1.1.** (31-34 segundo) |
| | | | **2.1.1.2.** (35-38 segundo) |
| | | **2.1.2.** (39-45 segundo) | **2.1.2.1.** (39-42 segundo) |
| | | | **2.1.2.2.** (43-45 segundo) |
| | **2.2.** (46-60 segundo) | **2.2.1.** (46-53 segundo) | **2.2.1.1.** (46-49 segundo) |
| | | | **2.2.1.1.** (49-53 segundo) |
| | | **2.2.2.** (54-60 segundo) | **2.2.2.1.** (54-60 segundo) |

## 9.2. Denbora jarraitua eta denbora neurtua

Barneko denbora ez da neurtzen era berean musika mota guztietan eta garai guztietan. Hori dela eta bi musika mota bereizten ditugu, musika-denbora ulertzeko agertzen den joeraren arabera: denbora jarraitua eta denbora neurtua.

### Denbora jarraitua

Musika-adierazpen bat jarraitua denean arnasketaren isiluneek soilik eta, daudenean, testuaren etenek, apurtzen dute musikaren jarraipen-ildoa. Hau da, *konposizio baten barneko denbora isilune adierazgarririk gabe, erritmo errepikagarririk gabe eta denbora-ikur gutxi batzuk bakarrik erabiliz eratzen denean, konposizioaren denbora jarraitua dela esaten da.* Hori da, hain zuzen ere,

[25] Azterlan mota horri buruzko informazioa eskuratzeko, interesgarria da Nicolas Ruwet-en taxonomiak ikustea: Nattiez, Jean Jacques: "Fondements d'une sémiologie de la musique", Union Générale d'Éditions, Paris, 1975 (ISBN 2-264-00003-1), III. zatiko I. kapitulua, *Les procédures taxinomiques de Nicolas Ruwet* (239--319 or.).

**Kantu gregoriano** izeneko musikan (**kantu laua** ere izendatzen da) eta musika herrikoi batzuetan[26] gertatzen dena. XX. mendeko hainbat musika motatan eta egun sintetizagailu eta ordenagailuen bidez egindako "**musika garaikide**" izeneko hainbat musika motatan ere, denbora jarraikia erabiltzen da. Azken musika mota hori teknikoki neurtua da, alabaina ez ditu denbora neurtuaren ohiko ezaugarriak; izan ere, pertzepzioaren ikuspegitik, denbora jarraikiarekin denbora neurtuarekin baino harreman estuagoa baitauka[27].

**Denbora neurtua: neurriak eta taupadak.**

*Musika-diskurtsoa denbora-unitate finko eta erregularretan banatzen denean, hau da, iraupen bereko zatitan banatzen denean, denbora neurtua dela diogu.* Denbora-unitate horiek funtsezkoak dira musika-adierazpenaren izaera tekniko eta soziala mugatzeko eta baita, entzumenaren bidez, musika ezagutarazteko ere.

## 9.3. Neurriak eta taupadak.

**Neurria**

*Denbora neurtua denean, denbora-unitate finko eta errepikagarriari **neurri** izena ematen diogu* eta dantza mota guztietan, musika herrikoi ugaritan eta Europako musika akademikoetan (eskola edo kontserbatorioko musika gehienetan) erabiltzen da, modu orokorrean. Era berean, gure usadiozko musika eta XX. eta XXI. mendeko musika berri gehienak ere neurtuak izaten dira.

Neurriak ez dira neutroak; ez dira berdinak gizarte eta giza talde guztietan. Nahiz eta globalizazioaren eta kontsumoaren eraginez, neurri eta musika-estilo guztiak ia toki guztietan kontsumituak izan, oraindik orain hainbat neurri eta hainbat musika-estilo gizarte edo kultura jakin batzuekin lotzen dira eta beren ordezkaritzat hartzen dira.

*Salbuespenak salbu, zenbakiz osatutako ikur baten bidez adierazten da neurria; horregatik ikur hori **neurri-ikur** izendatzen dugu.* Neurri-ikurrek neurriaren nolakotasuna adierazten dute; konposizioaren hasieran jartzen dira eta adierazitako neurriak indarrean jarraitzen du konposizioa amaitu arte edo neurri--aldaketa gertatu arte.

Ikurraren irudiari dagokionez, neurri-ikurra bata bestearen gainean kokatzen diren bi zenbakik adierazten dute; gaineko zenbakiak denbora-ikurren kopurua adierazten du eta azpiko zenbakiak denbora-ikur hori zein den azaltzen du:

- Azpiko zenbakia 1 bada, erreferentziazko denbora-ikurra borobila dela ulertu behar da; lau bateko neurriak (4/1), adibidez, lau borobil biltzen dituen neurria dela esan nahi du.

- Azpiko zenbakia 2 bada, erreferentziazko denbora-ikurra zuria dela ulertu behar da; bi biko neurriak (2/2), adibidez, bi zuri biltzen dituen neurria dela esan nahi du.

---

[26] Zuberoako kantu klasikoetan (arestian aipatu dugun *Haltzak ez du bihotzik*, adibidez), kantu-autoreen musika askotan eta kantu herrikoi ugaritan maiz erabiltzen da denbora jarraitua.

[27] Ikus, adibide gisa, Jose Manuel Crespo Cestafe musikagile donostiarraren *Thru spring* konposizioa, ordenagailuz egindakoa da eta segundotan neurtzen dena.

- Azpiko zenbakia 4 bada, erreferentziazko denbora-ikurra beltza dela ulertu behar da; bi lauko neurriak (2/4), adibidez, bi beltz biltzen dituen neurria dela esan nahi du.

- Azpiko zenbakia 8 bada, erreferentziazko denbora-ikurra kortxea dela ulertu behar da; bost zortziko neurriak (5/8), adibidez, bost kortxea biltzen dituen neurria dela esan nahi du.

- Azpiko zenbakia 16 bada, erreferentziazko denbora-ikurra kortxeaerdia dela ulertu behar da; zortzi hamaseiko neurriak (8/16), adibidez, zortzi kortxeaerdi biltzen dituen neurria dela esan nahi du.

**Neurriaren taupadak**

Neurria ez da musika-diskurtsoan ager daitekeen denbora-tarte laburrena. Neurriaren barruan beste denbora-unitate laburrago batzuk erabiltzen ditugu, neurriaren barruko denbora-banaketa zehaztu ahal izateko. Hala, ***taupadak,*** *neurriak baino laburragoak diren denbora-unitateak dira.* Beraz, musika--diskurtsoa neurritan banatzen den era berean, neurria taupadatan banatzen da eta, neurriak bezala, taupadak ere hainbat eratakoak izan daitezke.

**Taupada-zatiak**

***Taupada-zatia*** *taupada baino txikiagoa den denbora-unitatea da, taupadaren zati bat.* Taupada-zatiak era askotakoak izan daitezke eta neurriek eta taupadek bezala, neurriaren barruko denbora-banaketa zehazteko erabiltzen dira.

## 9.4. Banalerroak eta errepikatze-zeinuak.

***Banalerroa*** *boslerrokoa bertikalki zeharkatzen duen eta neurrien mugak adierazten dituen lerro bertikala da.* ***Neurri-lerro*** izena ere ematen zaio: neurrien mugak adierazten dituen lerroa da.

**Banalerro soila**

***Banalerro soila*** *neurri biren artean kokatzen den lerro bertikala da.* Banalerro soilek neurrien mugak adierazten dituzte. Gainera, konposizio batean erritmo-eskemen errepikapen simetrikoa gertatzen denean, banalerro horiek lagungarriak dira aipatutako eskemak hobeto ulertzeko.

**Banalerro bikoitza**

***Banalerro bikoitza*** *adierazpen-unitate handien mugak adierazteko erabiltzen den zeinua da.* Boslerrokoa bertikalki zeharkatzen duten bi marra paraleloek osatzen dute banalerro bikoitza.

Musika-diskurtso barruan, taupadaz eta neurriez gain, beste musika-tarte batzuek ere badaude eta handiagoak dira azken hauek. Musika-tarte horiek behin--behineko edota behin betiko amaieren bidez adierazten dira musikalki. Beraz, banalerro bikoitza, musika-tarte horien mugak grafikoki adierazteko erabiltzen den zeinua da. Banalerro bikoitza agertzen denean, musika-adierazpena bera edo musika-tarte garrantzitsu bat bukatu dela ulertu behar da; normalean, bigarren lerroa lehena baino lodiagoa izaten da. Era berean, neurria aldatzen denean ere, banalerro bikoitza erabiltzen da neurrien aldaketa-lekua adierazteko.







### Errepikatze-zeinuak

*Errepikatze-zeinu izenez izendatzen ditugu bi puntuz lagunduta agertzen diren banalerro bikoitzak.* Eskuarki, aipatutako puntuak banalerro bikoitzaren eskuin aldean agertzen dira lehenik eta behin, aurrera begira, eta ondoren banalerro bikoitzaren ezker aldean, atzera begira. Errepikatze-zeinuek puntu horien arteko musika-zatia errepikatu behar dela esan nahi dute. Beste kasu batzuetan, aldiz, hasierako punturik egon gabe, banalerro bikoitzaren ezker aldean agertzen dira bi puntuak. Hori gertatzen denean, puntuak dauden tokitik konposizioaren hasierarainoko musika-zatia errepikatu egin behar dela adierazten du errepikatze-zeinuak. Azkenik, hainbat kasutan ezkerrean eta eskuinean aipatutako puntuak dituen banalerro hirukoitza agertzen da, erdiko lerroa lodiagoa duena; hau ere errepikatze-zeinua da eta errepikatze-zeinu horrek aurreko eta ondorengo musika-zatiak, biak ala biak, errepikatu behar direla adierazten du.



**9. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ikasleek irakasleak denbora jarraituan kantatutako doinu-tartea errepikatu behar dute (arestian aipatu dugun Zuberoako kantu bat, kantu gregoriano bat edo estilo horretan asmatutako edo inprobisatutako kantu-zati bat izan daiteke.

**b)** Ikasleek irakasleak denbora neurtuan kantatutako doinu-tartea errepikatu behar dute (irakasleak asmatutako edo inprobisatutako kantu-zati bat izan daiteke. *Mariaño errazu,* Azkueren kantutegian agertzen den kantua eta kantutegi horretan agertzen diren beste hainbat kantu ere baliagarriak dira ariketa honetarako[28].

**c)** Ikasleek nota-giltza bat marraztu behar dute boslerroko batean. Horren ondoren 2/4ko neurri-ikurra[29], banalerro batzuk eta, boslerrokoaren amaieran, banalerro bikoitza marraztuko dituzte. Amaitzeko, ikasleek neurri bakoitzean zuriaren denbora-ikur bat edo beltzaren denbora-ikur bi marraztuko dituzte.

[28] Ikusi *Mariaño errazu,* Azkue, R. M., aip. ob., II. lib., 998. or.
[29] "Bi lauko neurri-ikurra" irakurri behar da.

**d)** Ikasle batzuek kantu bat kantatu behar dute eta beste batzuek kantu horren taupadak markatu behar dituzte txalo joz. Ariketa errepikatu egingo da ikasleen zereginak aldatuz eta, txalo egin beharrean, gorputza kolpatuz (taupada--zatiak ere adierazi ahal izango dituzte).

# 10. Musika-diskurtsoaren denbora (II):

# Musika-azentua.

## 10.1. Neurriaren azentuazioa.

Hitz egiten dugunean, hitz baten silaba guztiei indar edo azentu berbera ematen ez diegun bezalaxe, musika-diskurtso neurtuetan ere gauza bera gertatzen da: neurri moten arabera, nota guztiei ez diegu indar edo azentu berbera ematen. Musika neurtuan neurriko taupada eta taupada-zati batzuk ozenak edo azentuatuak dira eta beste taupada edo taupada-zati batzuk, aldiz, leunak edo azentugabeak. Bada, ***neurriaren azentuazioa*** *deitzen diogu neurri baten taupadetan eta taupada-zatietan agertzen diren hots azentudunen eta hots azentugabeen arteko jokoari.*

**Azentuazioa** garrantzi handiko gaia da musika neurtuan[30]. Azentuazioak neurri mota zehazten du eta musikaren ezaugarri nagusienetako bat izateaz gain, adierazkortasunaren eta musikaren izaera beraren funtsa da. Beste toki batean ikasiko dugunez, musika-adierazpen baten denbora, doinua eta harmonia bera, besteak beste, azentuazioaren mende daude.

Oro har, musika neurtuan, neurrien azentuak bi eratakoak izaten dira: azentu ozenak eta azentu leunak.

### Azentu ozena

***Ozen*** *hitzak neurriko nota bat edo batzuk ozenki edo indartsu interpretatu behar direla esan nahi du.* Adigaiaren esangura luzatuz, adierazpide bera erabiltzen dugu musika-tarte bat ozenki interpretatu behar dela adierazteko. Hainbat kasutan, musika-adierazpen baten ozentasun-mailak bere sakoneko gizarte-izaera eta erabilera ezagutzeko bide ematen du.

### Azentu leuna

***Leun*** *hitzak neurriko nota bat edo batzuk suabe, ahul edo gozo interpretatu behar direla esan nahi du; aparteko azenturik ez duten edo azenturik gabeko notak leuntzat jotzen dira.* Kontzeptuaren esangura luzatuz, adierazpide bera erabiltzen dugu, orokorrean, musika-tarte bat leun edo maila gutxiko ozentasunaz interpretatu behar dela adierazteko edo interpretazioan azentuak ez ditugula nabarmendu nahi adierazteko. **Piano** italiar hitza ere erabiltzen da nota bat edo batzuk leun interpretatu behar direla adierazteko.

## 10.2. Taupada edo pultsazio motak.

Arestian neurriaren taupadak aipatu ditugu. Alabaina, taupadak edo pultsazioak era askotakoak izan daitezke eta neurririk gabeko musika jarraituan ere gauzatzen dira. Ildo horretan, ***taupada*** *hitzak diskurtsoaren narrazio-denbora ere adierazten du* eta taupadek harreman estua dute interpreteen taupada fisiologikoekin: interpreteen adinarekin, interpreteen aldartearekin eta abarrekin. Musika neurtuan erabiltzen diren taupadak teknikoki eratzen dira lortu nahi den

[30] Denbora jarraituko edo neurri finkorik gabeko musikan ere badago azentuazioa; alabaina, beste mota batekoa da eta beste toki batean landuko da.

adierazpena lortzeko; eta taupadek ere, alderdi fisiologikoen eragina jaso dezaketen arren, beren eraketan musikaren alderdi teknikoek dute eragin nagusia. Beraz, musikaren izaeraren edo estiloaren arabera, taupadak bi kategoriatan sailkatzen ditugu: taupada fisiologikoak eta taupada neurtuak.

### 10.2.1. Taupada fisiologikoak edo fisiologia-taupadak.

Arestian adierazi dugun bezala, taupada fisiologikoak dira musika jarraituan musikaren barne-denbora markatzen dutenak[31]. Taupada fisiologikoetan garai, toki eta gizartearen arabera eta interpretatzailearen adin eta aldartearen arabera, aldaketak gertatzen dira. Hau da, testuinguruak eta musikarien, kantarien edo jotzailearen ezaugarri fisiko, psikiko eta sozialek eragin handia eta zuzena izaten dute taupada fisiologikoetan; taupada horiek era askotakoak izan daitezke eta, gainera, normalean ez dira guztiz erregularrak.

Bestalde, ordenagailuz egindako hainbat musikatan denbora jarraitua izaten da. Teknikoki erabat ezberdinak diren beste modu eta baliabide batzuk erabiliz gauzatzen da denbora hori[32]; alabaina, denbora jarraituarekin denbora neurtuarekin baino harreman estuagoa dauka. Hori dela eta, musika horren taupadak, fisiologia-taupadak baliratekeen sailkatzen ditugu.

### 10.2.2. Neurrien taupadak eta taupada-zatien azentuak.

Musika neurtuan, neurriaren taupadak eta taupada-zatiak erregularrak eta luzera berekoak dira. Haatik, erregularrak izan arren, guztiak ez dira berdinak eta, gainera, neurri batean sartzen diren taupaden eta taupada-zatien kopuruaren arabera, taupada eta taupada-zati horien tamaina edo luzeraren arabera eta taupada- eta taupada-zati horietan antolatzen den azentuazioaren arabera, neurri bat kategoria batean edo beste batean sailkatzen da.

### 10. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:

**a)** Ikasleek denbora jarraituan eta denbora neurtuan konposatutako kantu batzuk kantatu behar dituzte.

**b)** Kantu batzuen grabazioak entzun ondoren, ikasleek musika-adierazpen horien denbora jarraitua edo neurtua atzeman beharko dute (ikus erreferentziak bibliografian).

**c)** Txalo eginez edo gorputza kolpatuz, ikasleek taupada erregularrak markatu behar dituzte.

**d)** Denbora jarraituaren ezaugarri nagusia atzemateko, ikasleek denbora jarraituko kantu bat kantatu behar dute eta, txalo eginez, taupadak markatzen saiatu behar dute.

**e)** Ikasle batzuek kantu baten taupadak jo behar dituzte eta, bitartean, beste batzuek, gorputza kolpatuz, taupada-zatiak joko dituzte. Batzuek eta besteek taupada eta taupada-zati ozenak eta leunak ongi bereizi behar dituzte.

---

[31] Musika jarraitua den kantu gregorianoari **kantu laua** ere deitzen zaio.
[32] Normalean segundotan neurtzen da.

# 11. Musika-diskurtsoaren denbora (III):

# Neurrien sailkapena.

## 11.1. Neurrien sailkapena eta musika-lengoaia edo solfeoa.


Arestian adierazi dugunez, neurriak taupada eta taupada-zatien kopuruaren, taupada eta taupada-zati horien tamainaren eta taupada eta taupada-zati horietan antolatzen den azentuazioaren arabera sailkatzen dira: **a)** neurriak bi, hiru edo lau taupadakoak izan daitezke; **b)** taupada bakoitza bi edo hiru taupada-zatitan bana daiteke; eta **c)** neurriak iraupen handiko, ertaineko edo laburreko taupadadunak izan daitezke.

Hala, neurria iraupen bereko bi taupadakoa denean **neurri bikuna** dela esaten dugu; taupada iraupen bereko bi taupada-zatitan banatzen denean **taupada bikuna** dela esaten dugu eta gauza bera gertatzen da taupada-zati laburragoekin. Ildo bera jarraituz, neurria hiru taupadakoa denean **neurri hirukuna** dela esaten dugu; taupada hiru taupada-zatitan banatzen denean **taupada hirukuna** dela esaten dugu eta sailkapen bera egiten dugu taupada-zati laburragoekin: taupada--zati bat iraupen bereko hiru taupada-zatitan banatzen denean **taupada-zati hirukuna** dela esaten dugu, adibidez. Lau taupadako neurria **neurri laukuna** izango litzateke; hala ere, normalean ez dugu neurri laukuna izendatzen. Bikoiztutako neurri bikuntzat jotzen da normalean eta, hala, neurri bikun bikoitza bailitzan sailkatzen da[33].

Musika-ikastetxeetan ohiko praktika da idatziriko musika-zeinuak kantatzea eta, denbora hobeto neurtzeko, idatzirikoa kantatzean, neurria beso baten mugimenduaz markatzea. Bada, ariketa horri **solfeoa** deitzen diogu[34]. Ikus ditzagun hainbat neurri eta solfeatzean neurri horiek markatzeko egiten diren beso-mugimenduak:

### 11.1.1. Neurri bikunak.

*Bi taupadaz eratuta dagoen neurria da **neurri bikuna**.* Solfeo ariketetan lehen taupada besoa **beherantz higituz** eta bigarren taupada besoa **gorantz higituz** markatzen dira. Neurri bikun guztietan lehen taupada ozena da (azentuduna) eta bigarrena leuna (azentugabea).




**Taupada bikuneko neurri bikuna**

*Neurria bi taupadatan eta taupada bakoitza bi taupada-zati berdinetan banatzen denean, **taupada bikuneko neurri bikuna** dugu.*

[33] Bikun, hirukun eta laukun hitzak *binaire, ternaire* eta *mesure à quatre temps* hitz eta esapideekin izendatzen dira frantsesez eta *binario, ternario* eta *cuaternario* hitzekin izendatzen dira espainieraz.
[34] Solfeoa edo musikaren irakurketa kantatu hori, Guido D'Arezzo izeneko XI. mendeko musikari batek asmatu zuen. *Micrologus de arte musica* (1023) eta *Epistola ad Michaelem* dira bere idatzi interesgarrienak.

Taupada bikuneko neurri bikunetan lehen taupada-zatia ozena da eta bigarrena leuna. Ondorengo neurri-ikurra taupada bikuneko neurri bikuna da; neurri honetan bi beltz edo denbora-iraupen bera osatzen duten beste denbora-ikur batzuen konbinazioa sartzen da (zuri bat, adibidez).

**Bi lauko neurria:** $\frac{2}{4}$

**Taupada hirukuneko neurri bikuna**

*Neurria taupadatan eta taupada bakoitza hiru taupada-zati berdinetan banatzen denean,* ***taupada hirukuneko neurri bikuna*** *dugu.*

Taupada hirukuneko neurri bikunetan lehen taupada-zatia ozena da eta bigarren eta hirugarren taupada-zatiak leunak dira. Ondorengo neurri-ikurra taupada hirukuneko neurri bikuna da eta sei kortxea edo denbora-iraupen bera osatzen duten beste denbora-ikur batzuen konbinazioa sartzen da (bi beltz puntudun, adibidez).


**Sei zortziko neurria:** $\frac{6}{8}$

**Lau taupadatako neurriak**

Arestian adierazi dugun legez, lau taupadako neurriak bikuntzat jotzen dira nahiz eta aparteko berezitasun batzuk eduki. Nolabait esateko, lau taupadako neurria bi neurri bikunen elkarketa da, ñabardura batzuk kenduta.

Lau taupadako neurrietan lehenengo taupada ozena da; bigarrena leuna da; hirugarrena ozena da, baina, lehena baino ahulagoa; laugarrena, azkenik, leuna da, baina bigarrena baino leunagoa. Taupada-zatiei dagokienez, neurri motaren arabera, taupadak bikunak edo hirukunak izan daitezke.

Solfeatzean, lau taupadako neurriak honela markatzen dira: lehenengo taupada besoa **beherantz higituz**, bigarren taupada besoa **ezkerrerantz higituz,** hirugarren taupada besoa **eskuinerantz higituz** eta laugarren taupada besoa **gorantz higituz.**




Hurrengo neurri-ikurrek lau taupadako neurriak adierazten dituzte eta lau beltz edo denbora-iraupen bera osatzen duten beste denbora-ikur batzuen konbinazioa sartzen da (zuri bat eta bi beltz, adibidez).

**Lau lauko neurria:** **C** edo $\frac{4}{4}$


Jarraian datorren neurria taupada hirukuneko neurri bikuna da eta hamabi kortxea edo denbora-iraupen bera osatzen duten beste denbora-ikur batzuen konbinazioa sartzen da (zuri puntudun bat eta bi beltz puntudun, adibidez).

**Hamabi zortziko neurria:** $\frac{12}{8}$

### 11.1.2. Neurri hirukunak.

*Hiru taupadaz eratuta dagoen neurria da neurri hirukuna.*

Neurri hirukunetan lehen taupada ozena da (azentuduna) eta bigarrena eta hirugarrena leunak dira (azentugabeak). Solfeatzean neurri hirukuna honela markatzen da: lehenengo taupada **besoa beherantz** higituz, bigarren taupada **besoa eskuinerantz** higituz eta hirugarren taupada **besoa gorantz** higituz.




**Taupada bikuneko neurri hirukuna**

*Neurria hiru taupadatan eta taupada bakoitza bi zati berdinetan banatzen denean, **taupada bikuneko neurri hirukuna** dugu.*

Hurrengo neurri-ikurra taupada bikuneko neurri hirukuna da eta hiru beltz edo denbora-iraupen bera osatzen duten beste denbora-ikur batzuen konbinazioa sartzen da (zuri bat eta beltz bat, adibidez).

**Hiru lauko neurria:** $\frac{3}{4}$

**Taupada hirukuneko neurri hirukuna**

*Neurria hiru taupadatan eta taupada bakoitza hiru zati berdinetan banatzen duen neurria da **taupada hirukuneko neurri hirukuna.***

Hurrengo neurri-ikurra taupada hirukuneko neurri hirukuna da eta bederatzi kortxea edo denbora-iraupen bera osatzen duten beste denbora-ikur batzuen konbinazioa sartzen da (zuri puntudun bat eta beltz puntudun bat, adibidez).

**Bederatzi zortziko neurria:** $\frac{9}{8}$

### 11.1.3. Neurrien iraupena.

Taupada-unitatea den denbora-ikurraren arabera, neurriak iraupen ertainekoak, iraupen luzekoak edo iraupen laburrekoak izan daitezke[35].

**Iraupen ertaineko neurriak**

*Taupadaren denbora-unitatea beltza denean, iraupen ertaineko neurria dugu.* Beltza puntuduna denean ere, multzo berean sailkatzen da neurria.

[35] Dena den, neurri baten denbora osoa mugimenduaren mende dago. Hala bada, sailkapen hau baliagarria izateko, abiadura berean markatzen diren neurriak alderatu behar dira.

**Iraupen luzeko neurriak**

*Taupadaren denbora-unitatea borobila denean, iraupen luzeko neurria dugu.* Borobil hori puntuduna denean ere, multzo berean sailkatzen da neurria.

**Iraupen laburreko neurriak**

*Taupadaren denbora-unitatea kortxea denean, iraupen laburreko neurria dugu.* Kortxea hori puntuduna denean ere, multzo berean sailkatzen da neurria. Taupadaren denbora-unitatea kortxea baino laburragoa duten neurriak ere, multzo honetan sailkatzen dira.

## 11. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:

**a)** Ikasleek irakasleak proposatzen dituen neurriak markatu behar dituzte. Ikasleek markatze horren egokitzapena egingo dute irakasleak neurri-aldaketa proposatzen duenean.

**b)** Aurreko ariketa errepikatuko da taupada-zatiak sartuz. Hala, neurriak markatzeaz gain, ikasleek bi edo hiru zatitan banatutako taupadak adieraziko dituzte beso-higiduren bidez. Ikasleek markatze horren egokitzapena egingo dute irakasleak neurri-aldaketa proposatzen duenean.

**c)** Ikasleek aurreko ariketak errepikatuko dituzte taupada ozenak eta leunak bereiziz. Taupada ozenak "ku" ozen baten bidez eta taupada leunak "ta" leun baten bidez adieraziko dituzte[36].

**d)** Ikasleek aurreko ariketak errepikatu egin behar dituzte eta taupadak adierazteaz gain, taupada-zatiak ere adierazi behar dituzte[37].

[36] Irakasleak hemen proposatzen ditugun silabak edo berak asmatutako beste batzuk erabil ditzake.
[37] Taupada-zatiak adierazteko hainbat silaba erabiltzen dira. Beraz, irakasleak berak hautatuko ditu taupada--zatiak adierazteko egokienak diren silabak.

# 12. Musika-diskurtsoaren denbora (IV): Ohiko neurrien deskribapen orokorra.

## 12.1. Neurri soilak edo sinpleak.

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, neurriak era askotakoak izan daitezke; **neurri soilak** edo **sinpleak** dira gehien erabiltzen direnak, hala ere, egon badaude **askotarikoak** diren neurriak ere. Azken hauek **amalgamako neurri** izenez izendatuko ditugu. Honako hauek dira gehien erabiltzen diren **neurri soilak** eta beren ezaugarri nagusiak[38]:

$\frac{2}{4}$ **Bi lauko neurria.**
Taupada bikuneko neurri bikuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Zuri bat,
- 2 beltz,
- 4 kortxea,
- 8 kortxeaerdi,
- 16 fusa,
- 32 fusaerdi.

$\frac{3}{4}$ **Hiru lauko neurria.**
Taupada bikuneko neurri hirukuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Zuri puntudun bat,
- 3 beltz,
- 6 kortxea,
- 12 kortxeaerdi,
- 24 fusa,
- 48 fusaerdi.

$\frac{4}{4}$ (C) **Lau lauko neurria.**
Taupada bikuneko neurri laukuna (bikun bikoitza) da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Borobil bat,
- 2 zuri
- 4 beltz,
- 8 kortxea,
- 16 kortxeaerdi,
- 32 fusa,
- 64 fusaerdi.

$\frac{2}{2}$ (¢) **Bi biko neurria.**
Taupada bikuneko neurri bikuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Borobil bat,
- 2 zuri
- 4 beltz,
- 8 kortxea,
- 16 kortxeaerdi,
- 32 fusa,

[38] Hurrengo laukietan aipatzen diren balioez gainera, denbora-ikur horien nahasketa onartzen da, baldin eta denen artean denbora-iraupen bertsua osatzen badute. Argibide hau neurri guztientzako da baliagarria.

- 64 fusaerdi.

$\frac{2}{8}$ **Bi zortziko neurria.**
Taupada bikuneko neurri bikuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Beltz bat,
- 2 kortxea,
- 4 kortxeaerdi,
- 8 fusa,
- 16 fusaerdi.

$\frac{3}{8}$ **Hiru zortziko neurria.**
Taupada bikuneko neurri hirukuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- beltz puntudun bat,
- 3 kortxea,
- 6 kortxeaerdi,
- 12 fusa,
- 24 fusaerdi.

$\frac{6}{8}$ **Sei zortziko neurria.**
Taupada hirukuneko neurri bikuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Zuri puntudun bat,
- 2 beltz puntudun (hiru beltz),
- 6 kortxea,
- 12 kortxeaerdi,
- 24 fusa,
- 48 fusaerdi.

$\frac{9}{8}$ **Bederatzi zortziko neurria.**
Taupada hirukuneko neurri hirukuna da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Zuri puntudun bat gehi beltz puntudun bat,
- 3 beltz puntudun
- 9 kortxea,
- 18 kortxeaerdi,
- 36 fusa,
- 72 fusaerdi.

$\frac{12}{8}$ **Hamabi zortziko neurria.**
Taupada hirukuneko neurri bikuna da (bikun bikoitza) da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Borobil puntudun bat,
- 2 zuri puntudun,
- 4 beltz puntudun,
- 12 kortxea,
- 24 kortxeaerdi,
- 48 fusa,
- 96 fusaerdi.

## 12.2. Askotariko edo amalgamako neurriak.

Askotariko edo amalgamako neurri izenez izendatzen ditugu neurri bakar batean neurri soil bi edo gehiago biltzen dituzten neurriak. Gure artean gehien erabiltzen direnak honako hauek dira:

$\frac{5}{8}$ **Bost zortziko neurria edo "zortziko" izenez ezagutzen dena.**
Hiru eta bi taupadako neurri soilak barnebiltzen ditu eta euskal musika klasikoan maiz erabiltzen da.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Beltz puntudun bat eta beltz bat,
- 5 kortxea,
- 10 kortxeaerdi,
- 20 fusa,
- 40 fusaerdi.

$\frac{7}{4}$ **Zazpi lauko neurria.**
Lau eta hiru taupadako neurri soilak barnebiltzen ditu.
Neurri honetan honako denbora-ikur hauek sar daitezke:
- Borobil bat eta zuri puntudun bat,
- 7 beltz,
- 14 kortxea,
- 28 kortxeaerdi
- 56 fusa,
- 112 fusaerdi.

**12. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Lerro hauen azpian hiru partitura-zati daude banalerrorik gabe. Ikasleek banalerro guztiak jarri behar dituzte eta banalerro soilak eta bikoitzak erabili behar dituzte.



b) Lerro hauen azpian hiru partitura-zati daude eta bertan neurriak osatu gabe agertzen dira. Ikasleek neurri horiek osatu behar dituzte hots- edota isilune--ikurrak jarriz.



c) Irakasleak kantu bat kantatu behar du. Ikasleek, keinurik egin gabe, kantuaren neurri bikuna edo hirukuna atzeman edo ezagutu behar dute. Ariketa errepikatu egin behar da beste kantu eta neurri mota batzuk erabiliz.

# 13. musika-diskurtsoaren denbora (V):

# Iraupen bereziko nota-multzoak.

## 13.1. Iraupen bereziko nota-multzoen definizioa.

***Iraupen bereziko nota-multzoa*** *izenez izendatzen dugu neurri baten ohiko denbora-harremanak hausten dituen nota-multzoa.* Iraupen bereziko nota--multzoak direla medio, neurri edo taupada baten barruan ohikoa den nota kopurua alda daiteke eta bertan hotsak eta isilak bil daitezke.

Iraupen bereziko nota-multzoak bi eratakoak izan daitezke: laburpenekoak eta luzapenekoak. *Denbora-ikurrak neurriaren arabera dagokiena baino iraupen txikiagokoak badira, iraupen bereziko nota-multzoa* ***laburpenekoa*** *dela diogu.* Aldiz, *denbora-ikurrek neurrian izan ohi dutena baino iraupen handiagoa badute, iraupen bereziko nota-multzoa* ***luzapenekoa*** *dela diogu.* Indarrean dagoen neurriaren arabera, taupada-erdia irauten duen kortxea taupada-heren bat irautera pasatzen denean, adibidez, laburpeneko iraupen bereziko multzoa dugu. Aldiz, indarrean dagoen neurriaren arabera, taupada-herena irauten duen kortxea taupada-erdia irautera pasatzen denean, luzapeneko iraupen bereziko multzoa dugu.


Beste aldetik, iraupen bereziko nota-multzoak erregularrak edo irregularrak izan daitezke: **erregularrak** iraupen bereko denbora-ikurrek osatutakoak dira; haatik, **irregularrak** iraupen ezberdineko denbora-ikurrek osatzen dituzte.

### 13.1.1. Laburpeneko iraupen bereziko nota-multzoak.

Laburpeneko iraupen bereziko nota-multzoak taupada bikuneko neurri bikunetan erabiltzen dira, normalean, eta arruntenak **hirukotxoak** eta **seikotxoak** dira. Hirukotxoen eta seikotxoen bidez, normalean bikuna den neurria edo taupada hirukun bilakatzen da.


**Hirukotxo erregularrak**

Hirukotxo erregularren interpretazioan hirukotxoaren lehen nota ozena da (azentuduna) eta bigarren eta hirugarren notak leunak dira (azentugabeak). Hirukotxoan hiru notako multzoak ohiko neurriko bi notako multzoa ordezkatzen du; hiru nota jartzen dira bi nota jarri ordez:




**Hirukotxo irregularrak**

Irregularrak direnean, hirukotxoak era askotan osa daitezke; hirukotxo bati dagokion denbora, adibidez, hainbat hots- eta isilune-ikur konbinatuz osa daiteke. Ondorengo hirukotxoen eraketak, kasu, egin daitezkeen askoren artean hautatutako adibide batzuk besterik ez dira:




**Seikotxo erregularrak**

Seikotxo erregularren interpretazioan seikotxoaren lehen, hirugarren eta bosgarren notak ozenak dira; bigarren, laugarren eta seigarren notak, aldiz, leunak dira. Seikotxoaren bidez, sei notako multzoak mota bereko lau notako multzoa ordezkatzen du; sei nota jartzen dira lau nota jarri ordez:




**Seikotxo irregularrak**

Irregularrak direnean, seikotxoak era askotan osa daitezke; seikotxo bati dagokion denbora, adibidez, hainbat hots- eta isilune-ikur konbinatuz osa daiteke. Ondorengo seikotxoen eraketak, egin daitezkeen konbinazio askoren artean hautatutako adibide batzuk besterik ez dira:



**Seikotxoaren eta hirukotxo bikoitzaren arteko aldea**

Hainbat kasutan, seikotxo eta hirukotxo bikoitza bereizteko unetan, nahasmena sortzen da. Bada, horrelakoetan gomendagarria da, zenbakiak jartzeaz gainera, partituran azentuazioaren nondik norakoa adierazten duen idazkera erabiltzea.

Seikotxoa:  **Hirukotxoa bikoitza:** 


### 13.1.2. Luzapeneko iraupen bereziko nota-multzoak.

Luzapeneko iraupen bereziko nota-multzoak taupada hirukuneko neurri bikun eta hirukunetan erabiltzen dira eta arruntenak **bikotxoak** eta **laukotxoak** dira. Bikotxo eta laukotxoen bidez, normalean hirukuna den neurri edo taupada, bikun bilakatzen da.

**Bikotxo erregularrak**


Seikotxo erregularren interpretazioan seikotxoaren lehen, hirugarren eta bosgarren notak ozenak dira; bigarren, laugarren eta seigarren notak, aldiz, leunak dira. Seikotxoaren bidez, sei notako multzoak ohiko neurriko lau notako multzoa ordezkatzen du, sei nota jartzen dira lau notaren ordez:

Bikotxo erregularren interpretazioan hirukotxoaren lehen nota ozena da eta bigarren nota leuna da. Bikotxoaren bidez, bi notako multzoak ohiko neurriko hiru notako multzoa ordezkatzen du, bi nota jartzen dira hiru notaren ordez:




**Bikotxo irregularrak**

Irregularrak direnean, bikotxoak era askotan osa daitezke; hau da, bere denbora osatzeko hainbat hots- edota isilune ikur konbina daitezke. Ondorengo bikotxoen eraketak, egin daitezkeen askoren artean hautatutako adibide batzuk besterik ez dira:



**Laukotxo erregularrak**

Praktikan, laukotxoa bi bikotxoren batuketa da; hala, laukotxoan lau notako multzoak sei notako multzoa ordezkatzen du. Azentuazioari dagokionez, laukotxo erregularren interpretazioan laukotxoaren lehen eta hirugarren notak ozenak dira; bigarren eta laugarren notak, aldiz, leunak dira.




**Laukotxo irregularrak**

Irregularrak direnean, laukotxoak era askotan osa daitezke; ondorengoak laukotxo irregularren eraketa mota batzuk dira:




### 13.1.3. Iraupen bereziko beste nota-multzo batzuk.

Aurreko multzoez gain, beste nota-multzo batzuk ager daitezke partitura batean, hainbat musikarik **irrazionalak** izendatzen dituztenak. Nota-multzo horien iraupenari dagokionez, baina, musikariek ez dute ematen, beti eta egoera guztietan, azalpen bertsua. **Boskotxoak, zazpikotxoak, bederatzikotxoak** eta **hamaikakotxoak** dira, besteak beste, iraupen bereziko multzo horiek. Azentuazioari dagokionez, musikagileak idazkeraren bidez besterik adierazten ez duen bitartean, lehen nota ozena eta gainerako guztiak leunak dira. Honako hauek dira horien iraupenak:

Boskotxoa: 

Zazpikotxoa[39]: 

Bederatzikotxoa: 

Hamaikakotxoa: 

### 13. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:

**a)** Ondoan hots-ikur batzuk agertzen dira. Ikasleek denbora-iraupen berdinak idatzi behar dituzte hirukotxo eta seikotxo erregularrak erabiliz.



**b)** Ondoan hots-ikur batzuk agertzen dira. Ikasleek denbora-iraupen berdinak idatzi behar dituzte hirukotxo eta seikotxo irregularrak erabiliz; isilune--ikurrak ere erabili beharko dituzte.




[39] Musikari batzuek kortxeaerdien zazpikotxoari beltzaren balioa ematen diote (ikus: A. Menéndez Aleyxandre, aip. ob., II. zatiko 10 or.); beste musikari batzuek, aldiz, fusaren zazpikotxoari ematen diote beltzaren balioa (ikus A. Danhauser, aip. ob. 24. or.). Hori dela eta, zalantzazko kasuetan, neurriaren denbora osatzeko falta den denbora gogoan hartzea gomendatzen dugu.

**c)** Ondoan hots-ikur batzuk agertzen dira. Ikasleek denbora-iraupen berdinak idatzi behar dituzte bikotxo eta laukotxo erregularrak erabiliz.



**d)** Ondoan hots-ikur batzuk agertzen dira. Ikasleek denbora-iraupen berdinak idatzi behar dituzte bikotxo eta laukotxo irregularrak erabiliz; isilune--ikurrak ere erabili beharko dituzte.



**e)** Ondoan hots-ikur batzuk agertzen dira. Ikasleek denbora-iraupen berdinak idatzi behar dituzte bost, zazpi, bederatzi eta hamaika notako nota--multzoak erabiliz.



**f)** Irakasleak kantu edo doinu bat kantatu behar du eta tartean bikotxo edo hirukotxo bat (neurri motaren arabera) txertatu behar du. Ikasleek erritmo-aldaketa atzeman behar dute. Ariketa errepikatu behar da beste kantu, doinu edo neurri mota batzuk erabiliz.

# 14. Musika-diskurtsoaren denbora (VI):

# Musika-diskurtsoaren abiadura.

## 14.1. Neurri-abiadura edo mugimendua eta *tempoa*.

Konposizio baten neurria bizkor, mantso, oso bizkor, oso mantso, eta abar interpreta daiteke. Bada, *neurria markatzean hartzen dugun bizkortasun edo mantsotasun hori* ***neurri-abiadura*** edo ***neurri-mugimendu*** *izendatzen dugu;* ***tempo*** *italiar hitza ere erabiltzen da neurriaren abiadura edo mugimendua adierazteko.* Neurri-mugimendua hainbat hitzen bidez adierazten da eta, ondorioz, hitz horiek musika-diskurtsoaren abiadura zehazten dute.

XVIII. mendeaz geroztik, musika akademikoan italiar hitz batzuk erabiltzen dira musika-diskurtsoaren abiadura edo mugimendua adierazteko. Beste musika mota batzuetan, aldiz, tokian tokiko hizkuntzen hitz arruntak erabiltzen dira horretarako. Beraz, teoria honetan biak ala biak erabiliko ditugu: italiar hitzak eta euskal hitzak.

Neurri edo musika-mugimendua adierazten duten hitzen esanahiak era askotakoak izan daitezke: **a)** hitz batzuek era iraunkorrean adierazten dute konposizioaren abiadura eta, hala, adierazten den mugimendua musika-lan osoan zehar edo musika-tarte oso batean zehar gordetzen da; **b)** beste hitz batzuek aurreko hitzen esangurak apur bat aldatzen dituzte; hitz horiek aurreko hitzen txikigarriak eta handigarriak dira; **c)** beste hitz batzuek, azkenik, neurri--mugimenduan gerta daitezkeen behin-behineko gorabeherak adierazten dituzte; zehazki, indarrean dagoen neurri-mugimenduaren behin-behineko bizkortzeak, mantsotzeak eta etenak (kadentziak) adierazten dituzte azken hitz horiek.

### 14.1.1. Era iraunkorrean neurri-mugimendua adierazten duten italiar hitzak.

Hitz horiek partituraren hasieran eta boslerrokoaren gainean kokatzen dira normalean. Hona hemen hitz horietako batzuk eta beren esanahia gure hizkuntzan:

**Largo (oso mantso)**

Largo (zabal) italiar hitzak neurria oso mantso markatu behar dela eta, ondorioz, idatziriko musika **oso mantso** interpretatu behar dela adierazten du. Oso mantso eta oso poliki esapideek gauza bera adierazten dute.

**Adagio (mantso)**

Adagio italiar hitzak idatziriko musika **mantso** interpretatu behar dela adierazten du. Astiro, geldo, poliki eta motel hitzek gauza bera adierazten dute.

**Andante (lasai)**

Andante (ibilian) italiar hitzak **lasai** interpretatu behar dela adierazten du.

**Moderato (moderatu)**

Ez mantso eta ez bizkor; **moderatu,** andantea baino zertxobait bizkorrago interpretatu behar da.

**Allegro (alai, arin samar)**

Allegro (alai) italiar hitzak idatziriko musika **arin samar** interpretatu behar dela adierazten du. Laster, arin, azkar eta fite hitzek gauza bera adierazten dute.

**Presto (oso bizkor)**

Presto italiar hitzak neurria oso bizkor markatu behar dela eta, ondorioz, idatziriko musika **oso bizkor** interpretatu behar dela adierazten du. Bizkor-bizkor, oso arin, fite-fite, arin-arin eta oso laster esapideek gauza bera adierazten dute.

**Vivo, Vivace (oso bizkor)**

Vivo eta vivace italiar hitzek idatziriko musika **oso bizkor** interpretatu behar dela adierazten dute. Bizi-bizi, bizkor-bizkor, oso arin, fite-fite, arin-arin eta oso laster esapideek gauza bera adierazten dute.

### 14.1.2. Aurreko hitzen esangurak apur bat aldatzen dituzten italiar hitzak.

Honako hitz hauek aurreko italiar hitzen **txikigarriak** eta **handigarriak** dira eta abiapuntuko hitzen esangura pixka bat aldatu egiten dute.

**Txikigarriak edo diminutiboak:** txikigarriak edo diminutiboak, italiar hitzen esangura leuntzen duten aldatzaileak dira; italiar hitzen kasuetan, hitz horiek adierazten dutena baina "ez ... bezain ..." interpretatu behar da. Adibidez, *largo* italiar hitzak "mantso" adierazten badu, *larghetto* hitzak, *largo* hitzaren txikigarriak, "ez *largoa* bezain mantso" adierazten du. Hots, *largoa* baino bizkorxeago interpretatu behar da.

**Larghetto (txit mantso edo nahiko mantso)**

*Largo* hitzaren txikigarria da *larghetto* eta **txit mantso** edo **nahiko mantso** interpretatu behar dela adierazten du; hau da, mantso baina ez *largoa* bezain mantso.

**Adagietto (mantso samar, mantsotxo )**

*Adagio* hitzaren txikigarria da *adagietto* eta **mantso samar** edo **mantsotxo** interpretatu behar dela adierazten du; hau da, mantso interpretatu behar da baina ez *adagioa* bezain mantso.

**Andantino (lasai samar, lasaitxo)**

*Andante* hitzaren txikigarria da *andantino* eta **lasai samar** edo **lasaitxo** interpretatu behar dela adierazten du; beraz, lasai baina ez *andantea* bezain lasai.

**Allegretto (alai samar, alaitxo)**

*Allegro* (alai) hitzaren txikigarria da *allegretto* eta **arin samar** edo **alaitxo** interpretatu behar dela adierazten du; beraz, arin baina ez *allegroa* bezain arin.

**Handigarriak edo superlatiboak:** Handigarriak edo superlatiboak italiar hitzen esangura indartzen duten aldatzaileak dira; italiar hitzen kasuetan, hitz horiek adierazten dutena "baino gehiago" interpretatu behar da. Adibidez, *vivace* italiar hitzak "oso bizkor" adierazten badu, *vivacissimo* hitzak, *vivace* hitzaren

handigarriak, "*vivace* hitzak baino are bizkorrago" interpretatu behar dela adierazten du: "oso-oso bizkor". Aldiz, *larghissimo* hitzak largo baino are mantsoago interpretatu behar dela adierazten du, beraz: "oso-oso mantso".

**Larghissimo (oso-oso mantso)**

*Largo* hitzaren handigarria da *larghissimo* eta **oso-oso mantso** interpretatu behar dela adierazten du, *largoa* baino mantsoago.

**Prestissimo (oso-oso bizkor)**

*Presto* hitzaren handigarria da *prestissimo* eta **oso-oso bizkor** interpretatu behar dela adierazten du, prestoa baino bizkorrago.

**Vivacissimo, molto vivace (oso-oso bizkor)**

*Vivace* hitzaren handigarriak dira *vivacissimo* eta *molto vivace* eta **oso-oso bizkor** interpretatu behar direla adierazten dute, beraz, *vivacea* baino bizkorrago.

## 14.2. Metronomoa.

Metronomoa, musikan denbora neurtzeko erabiltzen den neurgailua da. Denbora-neurgailu hori zenbakiak dituen pendulu koskadun bat da eta funtsean, pendulu horretan kokatzen den pisu-neurri batek kontrolatutako erloju--mekanismoa da. Metronomoak neurriaren taupadak markatzen ditu eta mugimenduaren abiadura-aldaketak kontrolatzeko, aurrealdeko pendulu zenbakiduna eta pisu-neurria erabiltzen dira. Metronomoaren goialdean zenbaki txikiak daude idatzita eta behealdean, aldiz, zenbaki handiak agertzen dira. Zenbaki horien parean penduluaren pisu-neurria jartzen da eta horrela kontrolatzen da taupaden abiadura: pisu-neurria igo ahala, taupada kopurua jaitsi egiten da eta pisu-neurria beheratu ahala, taupada kopuruak gora egiten du.


Honako hauek dira, goitik hasita, zenbaki-taula horretan agertzen diren zenbakiak: 40 eta 60 artean zenbakiak binaka doaz (40, 42, 44, 46...), 63 eta 72 artean zenbakiak hirunaka doaz (63, 66, 69 eta 72), 72 eta 120 artean zenbakiak launaka doaz (72, 76, 80...), 120 eta 144 artean zenbakiak seinaka doaz (120, 126, 132...) eta 144 eta 208 artean zenbakiak zortzinaka doaz (144, 152, 160, 168...).

Musika-mugimendua adierazten duten italiar hitzen eta zenbaki horien arteko harremanei dagokienez, honako hauek dira ohiko baliokidetzak[40]: largoa, minutuko 40 eta 60 taupaden artean; larghettoa, minutuko 60 eta 66 taupaden artean; adagioa, minutuko 66 eta 76 taupaden artean; andantea, minutuko 76 eta 108 taupaden artean; moderatoa, minutuko 108 eta 120 taupaden artean; allegroa, minutuko 120 eta 168 taupaden artean; eta prestoa, minutuko 168 eta 208 taupaden artean.

Metronomoaren abiadura partituraren hasieran adierazten da. M.M. = 60, adibidez, taupada bakoitza segundo batekoa dela adierazten du (minutuko 60). Hainbat kasutan, aurreko zeinuez gain, taupada bakoitzari dagokion denbora--ikurra adierazten da: ♩ M.M. = 108, adibidez; edo hori guztia gehi italiar hitza: Allegro ♩ M.M. = 126.

[40] Baliokidetza hauek ez dira era absolutuan interpretatu behar.

Metronomoa Johann Nepomuk Mälzel (M.M. laburbilduta) mekaniko eta musikari germaniarrak asmatu zuen 1816an. Aldez aurretik ezagutzen zen makina bat egokituz sortu zuen.



**14. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ikasleek irakasleak proposaturiko neurriak eta neurri-mugimenduak markatu behar dituzte. Markatze hori, irakasleak goian aipatutako hitzak erabiliz neurri-mugimenduaren aldaketak proposatzen dituenean egin behar dute.

**b)** Aurreko ariketa bera errepikatuko da, baina oraingo honetan, italiar hitzen txikigarriak eta superlatiboak erabiliz egin behar da.

# 15. Musika-diskurtsoaren denbora (VII):

# Neurri-mugimenduaren aldaketak.

## 15.1. Neurri-mugimenduaren beste aldaketa batzuk eta etenak.

Hainbat kasutan, neurri-mugimenduan gorabeherak gertatzen dira eta musika-diskurtsoaren erritmo erregular eta iraunkorra aldatu egiten da. Neurri--mugimenduan gertatzen diren gorabehera horiek ere, italiar hitzak erabiliz adierazten dira, hainbat musika-estilotan[41]; beste musika mota eta estilo batzuetan eta gaur egungo musika-adierazpen gehienetan, aldiz, nazio bakoitza bere hizkuntzaz baliatzen da neurri-mugimenduaren aldaketak adierazteko. Neurri--mugimendu horien guztien aldaketak iraunkorrak edo behin behinekoak izan daitezke eta musika-diskurtsoa bizkortzea edo mantsotzea eragin dezakete.

### 15.1.1. Neurri-mugimendua iraunkorki bizkortzea adierazten duten hitzak.

Aurreko ikasgaian ikasitako hitzez gain edo haiekin batera, beste hitz batzuek ere era iraunkorrean neurri-mugimendua bizkortu egin behar dela adierazten dute. Honako hitz hauek dira garrantzitsuenak:

| **Italiar hitzak:** | **Esanahiak:** |
|---|---|
| *Animato* | Animatu, bizi-pozez, alai (lehen baino bizkorrago) |
| *Assai* | Samar, nahiko |
| *Andante quasi allegretto* | Andante ia bizkor |
| *Andante leggero* | Andante bizkor |
| *Allegro assai* | Bizkor samar |
| *Con moto* | Oso bizkor |
| *Leggiero* | Arin, bizkor |
| *Molto* | Asko, oso |
| *Molto vivace* | Oso bizkor, oso bizi |
| *Piu* | Gehiago |

### 15.1.2. Iraunkorki neurri-mugimendua mantsotzea adierazten duten hitzak.

Aurreko ikasgaian ikasitako hitzez gain edo haiekin batera, beste hitz batzuek ere, neurri-mugimenduaren mantsotzea era iraunkorrean egin behar dela adierazten dute. Honako hitz hauek dira garrantzitsuenak:

| **Italiar hitzak:** | **Esanahiak:** |
|---|---|
| *Moderato* | Moderatu (hitzen esangura apaldu edo moderatu) |
| *Moderato assai* | Moderatu samar |
| *Molto moderato* | Oso moderatu |
| *Allegro moderato* | Moderatuki bizkor |
| *Meno mosso* | Ez hain bizkor, ez hain animatu |
| *Non molto* | Ez asko |

[41] Batez ere, XIX. eta XX. mendeetako europar musika akademikoetan erabiltzen ziren.

| | |
|---|---|
| *Non troppo* | Ez gehiegi |
| *Non tanto* | Ez hainbeste |
| *Quasi* | Ia-ia, kasik |
| *Poco* | Gutxi |

### 15.1.3. Neurri-mugimenduaren behin-behineko aldaketak.

Musika-konposizio edo tarte gehienak neurri-mugimendua era iraunkorrean zorrozki gordez interpretatzen badira ere, konposizio baten une batean edo bestean mugimendua bizkortu, mantsotu edo eten egin daiteke, musika-adierazpenaren beharren arabera.

#### 15.1.3.1. Neurri-mugimendua emeki-emeki bizkortzeko hitzak.

Hainbat italiar hitz erabiltzen dira neurria gero eta bizkorrago markatu behar dela eta, horren ondorioz, idatziriko musika gero eta bizkorrago interpretatu behar dela adierazteko. Honako hauek dira gehien erabiltzen direnak:

| **Italiar hitzak:** | **Esanahiak:** |
|---|---|
| *Accelerando* | Bizkortzen, azeleratzen, gero eta bizkorrago |
| *Affrettando* | Bizkortzen, gero eta bizkorrago |
| *Incalzando* | Galgagabetzen, bizkortzen, gero eta bizkorrago |
| *Stringendo* | Estutzen, bizkortzen, gero eta bizkorrago |
| *Stretto* | Denbora estutuz, bizkortuz, gero eta bizkorrago |
| *Animando* | Animatzen, gero eta bizkorrago |
| *Ancor più* | Oraindik gehiago |
| *Molto più* | Askoz ere gehiago, bizkorrago |
| *Più moto* | Abiadura handiagoa, gero eta bizkorrago |
| *Più mosso* | Abiadura handiagoa, gero eta bizkorrago |
| *Sempre più* | Beti gehiago |

#### 15.1.3.2. Neurri-mugimendua emeki-emeki mantsotzeko hitzak.

Beste italiar hitz batzuek neurria gero eta mantsoago markatu behar dela eta, horren ondorioz, idatziriko musika gero eta mantsoago interpretatu behar dela adierazten dute. Honako hauek dira gehien erabiltzen direnak:

| **Italiar hitzak:** | **Hitzen laburpenak:** | **Esanahiak:** |
|---|---|---|
| *Ritardando* | *Ritard.* | Atzeratzen, geldotzen, gero eta mantsoago |
| *Ritenuto* | *Rit.* | Galgatu, geldotu, atzeratu, gero eta mantsoago |
| *Slargando* | *Slarg.* | Luzatzen, geldotzen, gero eta mantsoago |
| *Allargando* | *Allarg.* | Luzatzen, geldotzen, gero eta mantsoago |
| *Meno mosso* | | Mugimendu gutxiago<br>Gero eta mantsoago |

### 15.1.4. Ohiko neurri-mugimendua berreskuratzeko hitzak.

Neurri-mugimendua bizkortzeko eta mantsotzeko italiar hitzak erabiltzen diren bezalaxe, aldaketa bat gertatu ondoren, ohiko denbora berreskuratzeko italiar hitzak ere erabiltzen dira. Honako hauek dira gehien erabiltzen direnak:

| **Italiar hitzak:** | **Esanahiak:** |
|---|---|
| *Tempo* | Ohiko abiaduran, ohiko mugimenduan |
| *A tempo* | Ohiko abiaduran, ohiko mugimenduan |
| *1. tempo* | Lehenengo abiaduran, hasierako mugimenduan |
| *Primo tempo* | Lehenengo abiaduran, hasierako mugimenduan |
| *Come primo* | Lehen bezala |
| *In tempo* | Bere abiaduran, bere mugimenduan |

### 15.1.5. Zehaztu gabeko neurri-mugimendua adierazten duten hitzak.

Italiar eta latindar hitz batzuek neurri-mugimendua libreki interpretatu behar dela edo neurria zorroztasunik gabe markatu behar dela adierazten dute. Honako hauek dira gehien erabiltzen direnak:

| **Hitzak:** | **Hitzen laburpenak:** | **Esanahiak:** |
|---|---|---|
| *Rubato* | *Rub.* | Nahieran, denbora lapurtua, |
| *Tempo rubato* | | abiadura libreko tartea |
| *Ad libitum (lat.)* | *Ad libit* | Libreki, nahieran |
| *A piacere* | - | Gustura, nahieran |
| *Senza tempo* | - | Nahieran, abiadura finkorik gabe |
| *Senza mesura* | - | Neurririk gabe, nahieran |
| *Senza rigore* | | Zorroztasunik gabe, nahieran |

### 15.1.6. Dagoen neurri-mugimendua egiaztatzen duten hitzak.

| | |
|---|---|
| *Lo stesso tempo* | Abiadura bertsua, mugimendu bertsua |
| *Sostenuto* | Abiadurari eutsiz, mugimenduari eutsiz (*adagio sostenuto*) |
| *Tempo giusto* | Abiadura zorrotza, mugimendu doitua |

### 15.1.7. Eten-txapela.

*Eten-txapela, erdian puntu bat duen marra kurbatu baten bidez irudikatzen den zeinua da*[42] ( ⌒ ). Zeinu hori denbora-ikurren gainean kokatzen da normalean, baina horien azpian ere jar daiteke.

Eten-txapelak neurri-mugimenduaren behin-behineko etena adierazten du eta eten horren luzera kantarien edo jotzaileen esku gelditzen da beti. Eten--txapelak bi eratan interpreta daiteke: **a)** kantari edo jotzaile guztiek hotsak edo

[42] Frantsesez "*point d'orgue*" eta "point d'arrêt" (isilune-ikurren gainean) eta espainieraz "*calderón*" izendatzen da.

isilak luzatzen dituzte nahieran; eta **b)** orkestra edo musika-taldea isiltzen da eta interprete batek (edo batzuek) aldez aurretik prestatutako edo inprobisatutako musika-tarteki bat interpretatzen du (dute). Musika-tarteki horietaz baliatzen da musika-jolea gaiari buruzko inprobisazioak egiteko eta bere aparteko trebetasuna edo jotzaile-bertuteak erakusteko, besteak beste.

Lehenengo kasua arrunta da eta era guztietako musiketan ager daiteke. Bigarrena, aldiz, **fermata** (ahozkoa denean) edo **cadenza** (musika-tresna denean) italiar izenez ezagutzen da eta normalean bakarlarientzako kontzertuen amaieraldietan agertzen da.

**15. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Irakasleak hainbat neurri eta mugimendu proposatuko ditu eta ikasleek neurri eta mugimendu horiek markatu behar dituzte beso batez edo gorputzaren bidez.

**b)** Ikasleek irakasleak proposatutako denbora-aldaketak markatu behar dituzte, beso batez edo gorputzaren bidez. Irakasleak goian aipatutako hitzak erabiliko ditu.

# 16. Aldakariak. Diatonia, kromatia eta enarmonia.

## 16.1. Aldakarien definizioa eta aldakari motak.

*Aldakaria, noten hots-altuera aldatzen duen zeinua da.*

Aldakariak bost eratakoak izan daitezke: gorakaria, beherakaria, gorakari bikoitza, beherakari bikoitza eta normalkaria.

**Gorakaria**

*Gorakaria, nota baten altuera tonuerdi bat goratzen duen zeinua da.*

Gorakariaren ikurra honela irudikatzen da: #.

**Beherakaria**

*Beherakaria, nota baten altuera tonuerdi bat jaisten duen zeinua da.*

Beherakariaren ikurra honela irudikatzen da: ♭.

**Gorakari bikoitza**

*Gorakari bikoitza, nota baten altuera tonu bat goratzen duen zeinua da.*

Gorakari bikoitza honela irudikatzen da: x.

**Beherakari bikoitza**

*Beherakari bikoitza, nota baten altuera tonu bat jaisten duen zeinua da.*

Beherakari bikoitza honela irudikatzen da: 𝄫.

**Normalkaria**

*Normalkaria aurreko aldakari guztien eragina ezabatzen duen zeinua da.*

Normalkaria honela irudikatzen da: ♮.

## 16.2. Aldakari finkoak eta behin-behinekoak edo iragankorrak.

Gorakariak eta beherakariak bi motakoak izan daitezke, partituran duten kokapenaren eta eraginaren arabera: finkoak eta behin-behinekoak.

**Tonu-giltza eta aldakari finko edo propioak**


***Tonu-giltza*** *konposizio baten hasieran jartzen den eta konposizioaren tonua edo hotsen antolaera mugatzen duen aldakari finkoen multzoa da*[43].

---


[43] "RE maior" (REM) izeneko tonuaren tonu-giltzan, adibidez, bi gorakari agertzen dira eta horrek konposizio horretan FA eta DO notak goratu behar direla esan nahi du. SI beheratu maior (SIbM) izeneko tonuari dagokion tonu-giltzan, aldiz, bi beherakari agertzen dira eta horrek konposizio horretan SI eta MI notak beheratu behar direla esan nahi du. Gogoan izan "SI beheratu" (SIb) eta "FA goratu" (FA#) irakurri behar direla.

*Aldakari finkoak boslerrokoaren hasieran, nota-giltzaren ondoren, kokatzen diren aldakariak dira; propioak ere izendatzen dira. Aldakari finko edo propioak direla diogu, notetan duten eragina partitura osora zabaltzen delako* (kontrakoa adierazten ez den bitartean).

Hurrengo adibideetan bi gorakari eta bi beherakari dituzten bi tonu-giltzak ikus ditzakegu; bada, besterik adierazten ez bada, aldakarien eragina jasotzen duten notak goratuak ala beheratuak izango dira konposizio osoan zehar (lehen kasuan FA eta DO notak gorakaridunak dira; bigarren kasuan, aldiz, SI eta MI notak dira beherakaridunak):



Alabaina, aldakari finkoak era iraunkor eta formalean alda daitezke kantu edo musika-adierazpen batean zehar. Horretarako, banalerro bikoitz baten ondoren, tonu-giltza berria jartzen da eta aurreko tonu-giltza aldatua izan dela ulertzen da. Tonu-giltza berrian aurrekoaren aldakariak ezabatuak (normalkarien bidez), aldatuak edo kopuruan gehituak edo murriztuak izan daitezke.



**Behin-behineko aldakariak edo aldakari iragankorrak**

Aurrekoaz gainera, partituran zehar ere aldakari batek nota baten hots--altuera alda dezake une batez. Hori dela eta, nota baten hots-altuera behin-behienean aldatzen duten aldakari horiek **behin-behinekoak edo iragankorrak** izendatzen ditugu. Behin-behineko aldakariak noten aurrean jartzen dira eta kokatuta dauden tokitik neurria bukatu arte luzatzen da beren

eragina. Hurrengo musika-zatian zehar agertzen diren normalkariak, adibidez, behin-behineko aldakariak dira.



**Aldakarien ordena**

Tonu-giltzan agertzen diren aldakariak ez dira jartzen edozein modutan; aldakariak ordena zehatz bat jarraituz zerrendatzen dira. Ordena bertsua erabiltzen da beherakarientzat eta gorakarientzat; alabaina, gorakarien zerrenda goranzko norabidean adierazten da eta beherakarien zerrenda kontrako norabidean, beheranzkoan[44]. Beraz, aldakariek zerrenda bat eta bakarra eratzen dute; esaterako, gorakarien zerrenda beherakarien zerrenda bertsua da atzetik aurrera irakurrita eta alderantziz.

Honako hau da gorakarien zerrenda: FA, DO, SOL, RE, LA, MI, SI.

Beraz, tonu-giltzan gorakari bat baldin badago, FA nota izango da nota goratua edo gorakariduna. Tonu-giltzan bi gorakari badaude, FA eta DO notak izango dira nota goratuak edo gorakaridunak. Hiru gorakari badaude, FA, DO eta SOL notak izango dira goratuak. Lau gorakari badaude, FA, DO, SOL eta RE notak izango dira gorakaridunak. Bost gorakari badaude, FA, DO, SOL, RE eta LA notak izango dira goratuak. Sei gorakari badaude, FA, DO, SOL, RE, LA eta MI notak izango dira goratuak eta, azkenik, zazpi gorakari badaude, FA, DO, SOL, RE, LA, MI eta SI notak izango dira goratuak. Aldakarien zerrendan noten ordena hori salbuespenik gabe gordetzen da.


Honako hau da beherakarien zerrenda: SI, MI, LA, RE, SOL, DO, FA.

Ordena hori dela medio, beherakari bat badago tonu-giltzan SI notari dagokio eta, horren ondorioz, SI nota izango da beheratua edo beherakariduna. Bi beherakari baldin badaude, SI eta MI notak izango dira beherakaridunak. Hiru beherakari baldin badaude, SI, MI eta LA notak izango dira beherakaridunak. Lau beherakari badaude, SI, MI, LA eta RE notei eragingo die beheratze horrek. Bost beherakari badira SI, MI, LA, RE eta SOL notak izango dira beheratuak. Sei beherakari badira, SI, MI, LA, RE, SOL eta DO notak izango dira beherakaridunak eta zazpi beherakari badira, SI, MI, LA, RE, SOL, DO eta FA notei eragingo die beheratzeak.


Hona hemen beherakarien eta gorakarien zerrendak, boslerrokoan eta beren ordenan jarrita.

[44] Kontaketa egiteko zerrendan, gero azalduko ditugun bostun notarte doituak dira neurri-unitateak.

Beherakariak:




Gorakariak:




## 16.3. Diatonia, kromatia eta enarmonia.


Aldakarien eraginez, gradu elkartuen arteko altuera-tartea handitu edo txikitu egin daiteke. Orain arte, adibidez, goranzko FA - SOL noten arteko altuera-tartea tonu batekoa izan da kasu guztietan. Aldakarien eraginez, baina, altuera-tarte hori alda daiteke, nahiz eta noten izenak berberak izan (FA# - SOLb adibidez)[45]; edo tonuaren altuera-tarte hori beste neurri batekoa izan daiteke: tonuerdikoa (FA# - SOL)[46], tonu eta erdikoa (FA - SOL#)[47] edo bi tonukoa izan daiteke (FAb - SOL#)[48].

Aldakarien eragina dela bide, gradu elkartuen artean egon daitezkeen harremanak hiru kategoriatan sailkatzen ditugu: diatoniakoak, kromatiakoak eta enarmoniakoak:

### Diatoniako harremanak

Gradu elkartuz egindako noten arteko loturan, hotsak eta hotsen izenak batera aldatzen direnean, **diatonia** gertatzen dela diogu (DO - RE, adibidez).

Diatoniazko urratsak




MI - FA | DO - SI | SOL - FA | FA - SOL | LA - SI | SOL - LA | RE - DO

[45] "FA goratu SOL beheratu" irakurri behar da.
[46] "FA goratu SOL" irakurri behar da.
[47] "FA SOL goratu" irakurri behar da.
[48] "FA beheratu SOL goratu" irakurri behar da.

**Kromatia**

Gradu elkartuz egindako noten arteko loturan hotsak aldatu arren, hotsen izenak edo notak gordetzen direnean kromatia gertatzen dela diogu (DO - DO# adibidez).

Kromatiazko urratsak




FA - FA# | DO#-DO♮[49] | SOL- SOL# | MIb - MI♮[50] | SIb - SI♮ | LA - LAb | RE - RE#

**Enarmonia**

Nota batetik bestera pasatzean, nota-izenak aldatu arren, hots-altuera aldatzen ez denean, enarmonia gertatzen dela diogu (DOb - SI, adibidez).

Enarmoniak



**SOLb - FA# | SI - DOb | SOL# - LAb | MI# - FA | SIb - LA# | FAb - MI | MIb - RE#**

**16. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ondoren aldakari batzuen izenak agertzen dira. Horien azpian bakoitzari dagokion ikurra marraztu behar dute ikasleek.


Gorakaria Beherakari bikoitza Gorakari bikoitza Normalkaria

**b)** Ondorengo aldakarien azpian ikasleek ikur bakoitzari dagokion izena idatzi behar dute.

♯ ♭ × 𝄫 ♮

**c)** Ondorengo boslerrokoetan bi nota agertzen dira tarte bakoitzean. Ikasleek nota horien arteko altuera-tartea (tonua, tonuerdia...) eta lotura mota adieraziko dute (diatoniakoa, kromatiakoa edo enarmoniakoa).

[49] "DO goratu DO naturala" irakurri behar da.
[50] "MI beheratu MI naturala" irakurri behar da.



# 17. Neurrien azentu-aldaketak.

## 17.1. Sinkopa, kontrazentua eta anakrusa-nota.

### 17.1.1. Azentu-aldaketaren definizioa.


*Azentu-aldaketa, neurri, taupada edo taupada-zati baten ohiko azentuazioa aldatzen duen erritmo-gertaera da.*

Azentu-aldaketak bi motakoak izan daitezke: **a)** lotura-ikur batek edo bi neurri, taupada, edo taupada-zatiren artean kokatzen den nota batek eragindako **sinkopa** izenekoa; eta **b)** isilune-ikur batek eraginda sortzen den **kontrazentu** izenekoa[51].

### 17.1.2. Sinkopa.

*Sinkopa, taupada edo taupada-zati leun batean jotzen den eta taupada edo taupada-zati ozen batera luzatzen den nota batek eragindako azentu-aldaketa da.*

Sinkoparen eraginez taupada edo taupada-zati azentugabeak azentudun bilakatzen dira eta alderantziz; 2/4ko neurrian, adibidez, lehen taupada ozena edo azentuduna da (O) eta bigarrena leuna edo azentugabea (L). Bada, sinkopak ordena horren segida galarazten du eta azentuak alderantziz egiten dira: lehenengoa leuna eta bigarrena ozena, alegia.





Musika mota batean sinkopa maiz erabiltzen denean, **musika sinkopatu** izenekoa sortzen da[52].

#### 17.1.2.1. Sinkoparen luzera


Sinkopak hainbat luzeratakoak izan daitezke. Bertan biltzen diren hots--ikurren arabera sinkopak, luzeak, ertainak, laburrak edo oso laburrak izan daitezke.

**Sinkopa luzea** dela diogu azentu-aldaketa iraupen handiko nota batek eraginda sortzen denean (bi zuri lotuta normalean):





[51] "*Contretemps*" frantsesez eta "*contratiempo*" espainieraz.
[52] XX. eta XXI. mendeetako gazteriaren musika gehiena sinkopatua da.


**Sinkopa ertaina** dela diogu azentu-aldaketa bi beltzen loturak eraginda sortzen denean:



**Sinkopa laburra** dela diogu azentu-aldaketa bi kortxearen loturak eraginda sortzen denean:



**Sinkopa oso laburra** dela diogu azentu-aldaketa bi kortxeaerdiren loturak eraginda sortzen denean:




**17.1.2.2. Sinkopa bikunak edo erregularrak eta sinkopa irregularrak.**

Sinkopa eratzen duten bi hots-ikurren iraupena berdina denean **sinkopa bikuna** edo **erregularra** dela diogu.



Sinkopa eratzen duten bi hots-ikurren iraupena ezberdina denean **sinkopa irregularra** dela diogu.



### 17.1.3. Kontrazentua.


***Kontrazentua*** *isilune-ikurren eraginez gauzatzen den neurriaren ohiko azentu-ordenaren aldaketa da.*




#### 17.1.3.1. Kontrazentuen luzerak.

Sinkopak bezala, kontrazentuak hainbat luzeratakoak izan daitezke. Bertan biltzen diren isilune-ikurren arabera, kontrazentuak luzeak, ertainak, laburrak edo oso laburrak izan daitezke.

**Kontrazentu luzea** dela diogu azentu-aldaketa iraupen luzeko isilune--ikurrak eraginda gertatzen denean (zuriaren isilunea, normalean):



**Kontrazentu ertaina** dela diogu azentu-aldaketa beltzaren isilune-ikurrak eraginda gertatzen denean:





**Kontrazentu laburra** dela diogu azentu-aldaketa kortxearen isilune-ikurrak eraginda gertatzen denean:



**Kontrazentu oso laburrak** direla diogu azentu-aldaketa kortxeaerdiaren edo fusaren isilune-ikurrek eraginda gertatzen direnean:



### 17.1.3.2. Kontrazentu bikunak eta kontrazentu irregularrak.

Kontrazentua eratzen duten isilune- eta hots-ikurrak iraupen berekoak direnean, **kontrazentu bikuna** edo **erregularra** dela diogu.



Kontrazentua eratzen duten isilune- eta hots-ikurrak iraupen ezberdinekoak direnean, **kontrazentua irregularra** dela diogu.



Kasu guztietan, isilune-ikurraren eraginez azentua bereganatzen duen notari **kontrazentu-nota** deitzen zaio.

### 17.1.4. Anakrusa-notak.

*Anakrusa-notak konposizio baten lehen neurriko taupada leunetan jotzen diren notak dira.*

Konposizio bat, doinuren bat edo erritmoren bat lehen neurriko taupada edo taupada-zati leun batean hasten denean, lehen neurri horretan jotzen diren nota guztiak **anakrusa-notak** dira. Normalean, nota horiek ahots bakar baten bidez interpretatzen dira, gainerako ahotsak edo musika-joleak abiatu aurretik. Konposizioa era horretan abiatzen denean, hasiera **anakrusaduna** dela esaten dugu.

Hainbat kasutan anakrusaren esangura luzatu egiten da eta, hala, anakrusa--notekin hasten diren doinu, erritmo edo musika-adierazpenak ere **anakrusadunak** direla esaten dugu.

Anakrusa-notak bi eratan idatz daitezke:

**a)** Musika-adierazpena, bere osotasunean, anakrusa-notekin batera hasten bada, aurreko isilune-ikurrak ez dira idazten.




**b)** Anakrusa-notak kantatu aurretik, beste ahots edo musika-tresna batek ekiten badio musika-adierazpenari, anakrusa-aurreko isilune-ikurrak idatzi egiten dira.




**17. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ondorengo boslerrokoan puntu beltz batzuk agertzen dira. Horiek erabiliz, ikasleek doinu sinkopatu bat idatzi behar dute. Boslerrokoaren azpian sinkopeen luzera eta haien izaera bikuna ala irregularra adierazi behar da.





**b)** Ondorengo boslerrokoan doinu bat agertzen da, doinu sinkopatua da. Behar diren tokietan isilune-ikurrak tartekatuz, ikasleek kontrazentu-notak dituen doinu-ildo berbera idatziko dute azpiko boslerrokoan. Boslerrokoaren azpian kontrazentuen luzera eta haien izaera bikuna ala irregularra adierazi behar dute.





**c)** Ondorengo boslerrokoetan, ikasleek bi doinu anakrusadunak idatzi behar dituzte: bat isilune-ikurrik gabea eta beste bat isilune-ikurduna.





# 18. Notarteak (I):

# Oinarrizko kontzeptuak eta sailkapenak.

## 18.1. Notartearen definizioa.


*Notartea bi noten arteko altuera-tartea adierazten duen hitza da.*

Arestian gradu elkartuz eta gradu bananduz aritu gara (7.2. atalean). Bada, ildo bera jarraituz, zera esan dezakegu: kantu batean elkarren segidan doazen bi nota elkarren ondokoak izan daitezke ala elkarrengandik urrunduta egon daitezke eta elkartu/banandu kontzeptu orokorrak ez dira nahikoa horien arteko tartea adierazteko. Gradu elkartuak tonu-erdikoak, tonu batekoak edo beste tamaina batekoak izan daitezke eta antzeko zerbait gertatzen da gradu bananduen kasuetan: bi noten arteko altuera-tartea, tamaina askotakoa izan daiteke nahiz eta guztiak gradu banandukoak izan. Hori dela eta, noten arteko altuera-tarteak era zehatzean neurtzeko notarte kontzeptua erabiltzen dugu; beraz, *notartea noten arteko altuera-tarteak zenbatzeko eta sailkatzeko erabiltzen dugun kontzeptua da.*

## 18.2. Notarte elkartuak eta notarte bananduak.


### 18.2.1. Notarte elkartuak.

*Doinu batean, elkarren ondoan kokatuta dauden bi notek eratzen duten notartea **notarte elkartua** da.* Bada, elkarren ondoan dauden bi noten interpretazioan, nota batetik bestera pasatzen garenean, **urratsa** egin dugula esaten dugu.




### 18.2.2. Notarte bananduak.

*Doinu batean bi nota elkarrengandik aldenduta daudenean, eratzen duten notartea **notarte banandua** da.* Bestalde, elkarrekiko aldenduta dauden bi noten interpretazioan, nota batetik bestera pasatzen garenean, **jauzia** egin dugula esaten dugu.




## 18.3. Doinu- eta harmonia-notarteak.

### 18.3.1. Doinu-notartea.

*Doinu batean, elkarren segidan kantatzen diren bi noten arteko tartea* ***doinu-notartea*** *da.* Notarte melodikoa ere izendatzen da.

Doinu-notarteak **goranzkoak** eta **beheranzkoak** izan daitezke: goranzko notarteetan lehen nota bigarrena baino baxuagoa da eta beheranzko notarteetan lehen nota bigarrena baino altuagoa da.

Goranzko eta beheranzko doinu-notarteak




### 18.3.2. Harmonia-notartea.

*Aldi berean kantatzen diren bi noten arteko altuera-tarteari* ***harmonia--notartea*** *deitzen zaio.*

Notarte mota honetan bi notak batera kantatzen direnez, ezin litezke sailkatu goranzko edo beheranzko mugimenduak.

Harmonia-notarteak



## 18.4. Notarteen zenbaketa.

### 18.4.1. Notarte-sailkapena nota-eskaileraren ordenaren arabera.

Bi noten arteko altuera-tartea jakiteko, nota horiek nota-eskaileran agertzen duten gertutasuna neurtzen da lehenengo eta behin. Nota biak elkarren segidan joaten badira, nota biak zenbatzen dira eta, hala, notartea **biduna** dela esaten dugu, bi nota barnebiltzen dituena (DO - RE adibidez). Aldiz, notartea eratzen duten notak elkarrengandik urrunduta badaude, nota bi horiek gehi tartean sar daitezkeen gainerako notak zenbatzen dira; hori dela eta, notarte bat hiruduna, lauduna, bostuna, seiduna, zazpiduna, zortziduna eta abar izan daiteke.

Demagun, adibidez, goranzko DO - FA notartea dugula. Nota-eskaileraren goranzko ordenan DO notatik FA notara iristeko RE eta MI notak aipatu behar dira, DO eta FA aipatzeaz gain. Beraz, notarte hori **goranzko lauduna** izango da; izan ere, lau dira notarte horrek biltzen dituen notak: DO (re, mi) FA. Notartea beheranzkoa denean gauza bera egiten da, baina eskaileraren notak beheranzko norabidean zenbatzen dira: DO - FA **beheranzko bostuna**, adibidez, DO (si, la, sol) FA zenbatzen da.

### 18.4.2. Notarte soilak eta notarte anizkunak edo konposatuak.

**Notarte soilak** laburbiltzerik ez daukaten notarteak dira; bidun, hirudun, laudun, bostun, seidun, zazpidun eta zortzidun notarte guztiak soilak dira. Haatik, **notarte anizkunak** laburbil daitezkeen notarteak dira (DO - SOL hamabidun notartea, adibidez, anizkuna da, izan ere, DO - SOL bostun notarte soilean laburbil daiteke). **Notarte konposatu** ere izendatzen ditugu azken notarte hauek. Bederatzidunetik aurrerako notarte guztiak notarte konposatuak dira[53].

Esandakoaren arabera, notarteak honelakoak izan daitezke:

**a)** Notarte soilak:

Goranzko eta beheranzko bidun notartea.
Goranzko eta beheranzko hirudun notartea.
Goranzko eta beheranzko laudun notartea.
Goranzko eta beheranzko bostun notartea.
Goranzko eta beheranzko seidun notartea.
Goranzko eta beheranzko zazpidun notartea.
Goranzko eta beheranzko zortzidun notartea.

**b)** Notarte anizkun edo konposatuak:


Goranzko eta beheranzko bederatzidun notartea.
Goranzko eta beheranzko hamardun notartea.
Goranzko eta beheranzko hamaikadun notartea.
Goranzko eta beheranzko hamabidun notartea.
Goranzko eta beheranzko hamahirudun notartea.
Goranzko eta beheranzko hamalaudun notartea.
Goranzko eta beheranzko hamabostun notartea.
...

Ahots askotariko kantuetan, bi ahotsek nota bera kantatzen dutenean notarterik ez dago. Horregatik, noten arteko harreman hori adierazteko **nota bera, nota bakar** eta **unisono** hitzak erabiltzen ditugu. Noten arteko harreman hori adierazteko bat zenbakia idazten da normalean (1).


**18. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ondorengo boslerrokoen tarteetan doinu-notarte batzuk agertzen dira. Bada, "**a**" adibidean bezala, ikasleek notarte horiei dagozkien goranzko edo beheranzko zenbakiak eta haien izaera elkartua edo banandua adierazi behar dute hitzak erabiliz.


[53] Notarte anizkunak era errazean zenbatzeko, hasiera batean soilak bailiratekeen zenbatzea eta, ondoren, urruntzen den zortzidun bakoitzarengatik zazpi zenbakia gehitzea gomendatzen dugu. Hala, goranzko DO - FA lauduna (notarte soila), hamaikaduna (tartean zortzidun bat dagoenean) edo hamazortziduna (tartean bi zortzidun daudenean) izan daiteke.




**b)** Ondorengo boslerrokoen tarteetan doinu-notarte batzuk agertzen dira. Bada, "**a**" adibidean bezala, ikasleek notarte horiei dagozkien goranzko edo beheranzko zenbakiak eta haien izaera soila edo anizkuna adierazi behar dute hitzak erabiliz.




**c)** Ondorengo boslerrokoen tarteetan harmonia-notarte batzuk agertzen dira. Beraz, "**a**" adibidean bezala, ikasleek notarte horiei dagozkien zenbakiak eta haien izaera soila edo anizkuna adierazi behar dute hitzak erabiliz.



# 19. Notarteak (II):

# Beste sailkapen batzuk.

## 19.1. Notarte-sailkapena tonu kopuruaren arabera.

Aurreko ikasgaian ikusi dugunez, notarteak bidun, hirudun, laudun, bostun eta abar izan daitezke, notartea eratzen duten bi noten artean dagoen nota kopuruaren arabera. Alabaina, zenbaketaren ikuspegitik berdinak izan arren, notarteak hainbat tamainatakoak izan daitezke bertan biltzen den tonu kopuruaren arabera. Goranzko RE - FA eta goranzko FA - LA, adibidez, hirudun notarteak dira biak, alabaina, haien tamaina ez da berdina: RE eta FA noten artean tonu bat eta erdiko altuera-tartea dago, FA eta LA noten artean, aldiz, bi tonuko altuera--tartea dago. Beraz, notarte horien tamaina desberdina da nahiz eta biak hirudunak izan.

Hala bada, bidun, hirudun eta gainerako zenbakiez izendatzen ditugun notarte guztien tamaina zehaztasun osoz deskribatzeko, notarte horietan sartzen den tonu kopurua jakin behar da lehenengo eta behin; ondoren, horretarako egokia den notarteen sailkapena erabiliz, zenbakien eta tonu kopuruaren arabera dagokion izendapena emango diogu notarteari.

Aipatutako sailkapen horretan notarte guztiak ez dira izendatzen era berean; hala, laudun, bostun, zortzidun eta horien adierazpen anizkunek izendapen mota batzuk jasotzen dituzte eta bidun, hirudun, seidun, zazpidun eta horien adierazpen anizkunek beste izendapen mota batzuk jasotzen dituzte.


### 19.1.1. Laudun, bostun eta zortzidun notarteen sailkapena.

Laudun, bostun, zortzidun eta horien adierazpen anizkunak honako era honetan sailkatzen dira:

- Doituak (d)[54] ("goranzko laudun doitua", adibidez)[55]
- Handituak (h) ("beheranzko bostun handitua", adibidez)
- Txikituak (t) (goranzko zortzidun txikitua, adibidez)

**Laudun notarteak**

**Laudun doituko notartea** dela diogu ($4^{dun}$ d) lauduna eratzen duten bi noten artean bi tonu eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean[56].





[54] Frantsesez "*juste*" eta espainieraz "*justa/o*" erabiltzen da doitua adierazteko.

[55] DO - FA laudun notarteari **doitu** izena ematen badiogu, adibidez, DO - FA hamaikadunari ere doitu izena emango diogu. Bestalde, notarteen izen-sintagma luza daiteke eta, hala, "goranzko laudun doituko notartea", "beheranzko bostun handituko notartea" eta "goranzko zortzidun txikituko notartea" izenda daitezke, aipatutako notarteak.


[56] Tonu kopuruaz egindako deskribapena ere alda daiteke. Tonu bat jartzen dugun tokian, adibidez, bi tonuerdi izan daitezke. Hala eta guztiz ere, tonu eta tonuerdi horien batuketaren emaitzak goian aipatzen den bertsua izan behar du beti.

Laudun doituko notarteak




**Laudun handituko notartea** dela diogu ($4^{dun}$ h) lauduna eratzen duten bi noten artean hiru tonuko (edo bi tonu eta bi tonuerdiko) altuera-tartea dagoenean.

Laudun handituko notarteak




**Laudun txikituko notartea** dela diogu ($4^{dun}$ t) lauduna eratzen duten bi noten artean tonu bat eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Laudun txikituko notarteak




**Bostun notarteak**

**Bostun doituko notartea** dela diogu ($5^{tun}$ d) bostuna eratzen duten bi noten artean hiru tonu eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.





Bostun doituko notarteak




**Bostun handituko notartea** dela diogu ($5^{tun}$ h) bostuna eratzen duten bi noten artean hiru tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Bostun handituko notarteak




**Bostun txikituko notartea** dela diogu ($5^{tun}$ t) bostuna eratzen duten bi noten artean bi tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Bostun txikituko notarteak




**Zortzidun notarteak**

**Zortzidun doituko notartea** dela diogu ($8^{dun}$ d) zortziduna eratzen duten bi noten artean bost tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.





T 1 - T 1/2 - T 1 - T 1 - T 1 - T 1/2 - T 1

Zortzidun doituko notarteak




**Zortzidun handituko notartea** dela diogu ($8^{dun}$ h) zortziduna eratzen duten bi noten artean bost tonu eta hiru tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Zortzidun handituko notarteak



**Zortzidun txikituko notartea** dela diogu ($8^{dun}$ t) zortziduna eratzen duten bi noten artean bost tonu eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.

Zortzidun txikituko notarteak



### 19.1.2. Bidun, hirudun, seidun eta zazpidun notarteen sailkapena.

Bidun, hirudun, seidun eta zazpidun eta horien adierazpen anizkunak honako era honetan sailkatzen dira:

- Handituak (h) ("beheranzko bidun handitua" adibidez) [57]
- Maiorrak (M) ("goranzko hirudun maiorra", adibidez)


[57] Izen-sintagmak luzatuz, "beheranzko bidun handituko notartea", "goranzko hirudun maiorreko notartea", "beheranzko seidun minorreko notartea" eta "goranzko zazpidun txikituko notartea" idatziz adieraz daitezke aipatutako notarteak.

- Minorrak (m) ("beheranzko seidun minorra", adibidez)
- Txikituak (t) ("goranzko zazpidun txikitua", adibidez)

**Bidun notarteak**


**Bidun maiorreko notartea** dela diogu ($2^{dun}$ M) biduna eratzen duten bi noten artean tonu bateko edo bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Bidun maiorreko notarteak




**Bidun minorreko notartea** dela diogu ($2^{dun}$ m) biduna eratzen duten bi noten artean tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.

Bidun minorreko notarteak




**Bidun handituko notartea** dela diogu ($2^{dun}$ h) biduna eratzen duten bi noten artean tonu bat eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.

Bidun handituko notarteak



**Bidun txikituko notarterik** ez dago; izan ere, biduna eratuko luketen bi notek hots-altuera bertsua izango lukete eta, hala, **enarmonia**-harremana eratuko litzateke.


Enarmoniazko harremanak



**Hirudun notarteak**


**Hirudun maiorreko notartea** dela diogu ($3^{dun}$ M) hiruduna eratzen duten bi noten artean bi tonuko edo tonu bat eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Hirudun maiorreko notarteak




**Hirudun minorreko notartea** dela diogu ($3^{dun}$ m) hiruduna eratzen duten bi noten artean tonu bat eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.

Hirudun minorreko notarteak




**Hirudun handituko notartea** dela diogu ($3^{dun}$ h) hiruduna eratzen duten bi noten artean tonu bi eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean. Gutxitan erabiltzen da, laudun doituarekin nahas daitekeelako.

Hirudun handituko notarteak



**Hirudun txikituko notartea** dela diogu ($3^{dun}$ t) hiruduna eratzen duten bi noten artean tonu bateko edo bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.


Hirudun txikituko notarteak



**Seidun notarteak**


**Seidun maiorreko notartea** dela diogu ($6^{dun}$ M) seiduna eratzen duten bi noten artean lau tonu eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.

Seidun maiorreko notarteak




**Seidun minorreko notartea** dela diogu ($6^{dun}$ m) seiduna eratzen duten bi noten artean hiru tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Seidun minorreko notarteak




**Seidun handituko notartea** dela diogu ($6^{dun}$ h) seiduna eratzen duten bi noten artean lau tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Seidun handituko notarteak



**Seidun txikituko notartea** dela diogu ($6^{dun}$ t) seiduna eratzen duten bi noten artean bi tonu eta hiru tonuerdiko altuera-tartea dagoenean. Gutxitan erabiltzen da bostun doituak tonu kopuru bera duelako.


Seidun txikituko notarteak



**Zazpidun notarteak**


**Zazpidun maiorreko notartea** dela diogu ($7^{dun}$ M) zazpiduna eratzen duten bi noten artean bost tonu eta tonuerdi bateko altuera-tartea dagoenean.

Zazpidun maiorreko notarteak




**Zazpidun minorreko notartea** dela diogu ($7^{dun}$ m) zazpiduna eratzen duten bi noten artean lau tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.

Zazpidun minorreko notarteak




**Zazpidun handituko notartea** dela diogu ($7^{dun}$ h) zazpiduna eratzen duten bi noten artean bost tonu eta bi tonuerdiko altuera-tartea dagoenean. Notarte hau zortzidun doituarekin enarmoniza daiteke eta, gertaera hori dela medio, ez da erabiltzen.

Zazpidun handituko notarteak




**Zazpidun txikituko notartea** dela diogu ($7^{dun}$ t) zazpiduna eratzen duten bi noten artean hiru tonu eta hiru tonuerdiko altuera-tartea dagoenean.






Notarte anizkunek eraketa bera duten notarte soilen izenak bereganatzen dituzte: bederatzidunek bidunen izendapenak jasotzen dituzte, hamardunek hirudunen izendapenak jasotzen dituzte, hamaikadunek laudunen izendapenak jasotzen dituzte, hamabidunek bostunen izendapenak jasotzen dituzte eta abar.


**19. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa:**


Ondorengo boslerrokoen tarteetan doinu- eta harmonia-notarte batzuk agertzen dira. Ikasleek notarte horiei dagozkien zenbakiak eta, adibidean bezala, beren izaera doitu, maior, minor, handitu edo txikitua adieraziko dute.










[58] "Bidun minorra" irakurri behar da.


# 20. Notarteak (III):

# Notarte alderanztea.

## 20.1. Notarte-alderanztearen definizioa[59].

*Notarte bat eratzen duten bi noten arteko kokapen-harremana aldatzen denean, alderanztea gertatzen dela diogu.* Alderanzte horren eraginez, notarteko nota baxua nota altua izatera pasatzen da eta alderantziz. **Inbertsio** eta **alderanzketa** hitzak ere erabiltzen dira aipatutako harreman-aldaketa adierazteko.


Notarte baten alderanztea bi eratan egin daiteke: beheko nota zortzidun bat goratuz edo, alderantziz, goiko nota zortzidun bat beheratuz.





## 20.2. Notarte-alderanztearen zenbakikuntza.

Notarte baten alderanztea gertatu aurretik, notarte hori zenbaki baten bidez azaltzen dugu; ildo berean, alderanztea gertatu ondoren beste zenbaki baten bidez agertzen dugu notarte berria. Bada, notarte soiletan, abiapuntuko notarte--zenbakiaren eta alderanztearen emaitza den notarte-zenbakiaren batuketak bederatzi eman behar du kasu guztietan.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Alderanztea egin aurreko notartea: | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| Alderanztea egin osteko notartea: | 8 | 7 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 | 1 |
| Guztira: | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 |




[59] "Alderanztu", "alderantzikatu" eta "inbertitu" hitzen artean **alderanztu** hobetsi dut: alderanzten, alderanztea, alderanzgarri, alderantziz, alderanztuta eta abar.





## 20.3. Notarte-alderanztearen sailkapena.


Alderanztea gertatu ondoren, notarte-zenbakiaz gain, notartearen sailkapena ere aldatzen da:

- Notarte handituak notarte txikituak izatera pasatzen dira.
- Notarte maiorrak notarte minorrak izatera pasatzen dira.
- Notarte minorrak notarte maiorrak izatera pasatzen dira.
- Notarte txikituak notarte handituak izatera pasatzen dira.
- Notarte doituek aurreko izendapena gordetzen dute alderanztu ondoren.


### 20.3.1. Notarteen-alderanzteak aldakaririk gabe.


Aldakaririk gabe eta DO notatik abiatuta, honako doinu-notarte hauek sortzen dira alderanztea egin ondoren:






Aldakaririk gabe eta SI notatik abiatuta honako doinu-notarte hauek sortzen dira alderanztea egin ondoren:













### 20.3.2. Notarteen alderanzteak aldakariak erabiliz.

Aldakariak erabiliz gero, honako ideia hauek eduki behar ditugu gogoan:






- Beheko notari jarritako gorakari batek notartea txikitzen du.
- Goiko notari jarritako gorakari batek notartea handitzen du.
- Beheko notari jarritako beherakari batek notartea handitzen du.
- Goiko notari jarritako beherakari batek notartea txikitzen du.

Bada, notartearen alderanztea egin ondoren aldakarien eragina doi-doi kontrakoa da.

Ikus dezagun esandakoa ondoko doinu-notarteetan:

| Aldakariak jarri aurretik | | Aldakariak jarri ondoren | |
|---|---|---|---|
|  | Laudun handitua |  | Laudun doitua |
|  | Seidun minorra |  | Seidun maiorra |
|  | Bostun txikitua |  | Bostun doitua |
|  | Laudun doitua |  | Laudun txikitua |

Ikus dezagun esandakoa ondoko harmonia-notarteetan:

| Aldakaririk gabe | Aldakaria jarri ondoren | Alderanztea egin ondoren |
|---|---|---|
| Hirudun maiorra  | Hirudun minorra  | Seidun maiorra  |
| Hirudun maiorra  | Hirudun handitua  | Seidun txikitua  |
| Hirudun maiorra  | Hirudun handitua  | Seidun txikitua  |
| Hirudun maiorra  | Hirudun minorra  | Seidun maiorra  |

**20. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Ondorengo boslerrokoen tarteetan doinu- eta harmonia-notarte batzuk agertzen dira. Ikasleek, notarte bertsuak alboko tarte hutsetan idatzi, alderantzikatu eta sailkatu behar dituzte.




# 21. Musika-kontakizunaren denbora (VIII):

# Errepikatze-, bidaltze- eta laburtze-zeinuak.

## 21.1. Errepikatze-zeinuak.

***Errepikatze-zeinu*** *izenez izendatzen ditugu bi puntuz lagunduta agertzen diren banalerro bikoitzak.* Eskuarki, aipatutako puntuak banalerro bikoitzaren eskuin aldean agertzen dira, lehenik eta behin aurrera begira, eta ondoren, banalerro bikoitzaren ezker aldean, atzera begira. Errepikatze-zeinuek puntu horien arteko musika-zatia errepikatu egin behar dela esan nahi dute. Beste kasu batzuetan, aldiz, hasierako punturik egon gabe, banalerro bikoitzaren ezker aldean agertzen dira bi puntuak. Hori gertatzen denean, puntuak dauden tokitik konposizioaren hasierarainoko musika-zatia errepikatu egin behar dela adierazten du errepikatze-zeinuak. Hainbat kasutan ezkerrean eta eskuinean aipatutako puntuak dituen banalerro hirukoitza agertzen da, erdiko lerroa lodiagoa duena; hori ere errepikatze-zeinua da eta errepikatze-zeinu horrek aurreko eta ondorengo musika-zatiak, biak ala biak, errepikatu behar direla adierazten du.



Batzuetan, adierazpen-unitateari amaiera egokia emateko, errepikatze--zeinuaren aurreko neurria edo neurriak interpretatu gabe pasatu behar dira errepikatzean. Hori adierazteko, lehen aldia (I edo 1.ª) eta bigarren aldia (II edo 2.ª) adierazten dituzten zenbakiak eta zenbaki horiek biltzen dituzten marratxoak jartzen dira boslerrokoaren gainean.




## 21.2. Bidaltze-zeinuak.

***Bidaltze-zeinuak,*** *adierazitako tokira bidali eta adierazitako musika-zatia berriz jotzea agintzen duten zeinuak dira.* Bidaltze-zeinuak hainbat eratakoak izan daitezke.

𝄋 zeinua, ("**ixa**" zeinua) oso ohikoa da eta bi aldiz edo behin bakarrik ager daiteke. Bi aldiz agertzen denean, lehen agerpenak errepikapenaren abiapuntua adierazten du eta bigarrenak errepikapenera bidaltzen duen tokia adierazten du. "Ixa" zeinua (𝄋) behin bakarrik agertzen denean, hainbat gauza gerta daiteke: **a)** "o" zeinura (𝄎) bidaltzea eta, orduan, "o" zeinua ( 𝄎 ) dagoen tokia da errepikapenaren abiapuntua; **b)** inolako bidaltze-zeinurik ez egotea eta, orduan, "ixa" zeinuak ( 𝄋 ) konposizio-hasierara bidaltzen du: "***Da capo***" (burura); **c)** **D.C.** *da capo* italiar hitzen laburdura agertzen da askotan; bada, aurreko kasuetan bezala, errepikatzea agintzen du eta konposizio-hasierara joan behar da.





## 21.3. Laburtze-zeinuak.

*Hots bat, hots multzo bat edo doinu-eskema bat errepikatu egin behar dela adierazten duten zeinuak dira laburtze-zeinuak.* Hurrengo adibidean esanahi bera duten bi idazkera agertzen dira: goiko boslerrokoan laburtze-zeinuak erabiltzen dira eta beheko boslerrokoan zeinu horien esangura, nota guztiak idatzita.



**21. Ikasleei proposa dakiekeen ariketa-multzoa:**

**a)** Aurreko adibideen antzera, ondoko proposamenean ere bi boslerroko agertzen dira. Goiko boslerrokoan laburtze-zeinuak erabiliz idatziriko musika--zatia agertzen da eta beheko boslerrokoa hutsik agertzen da. Bada, ikasleek hutsik dagoen beheko boslerrokoan goiko musika-zatiaren interpretazioa idatzi behar dute ohiko notazio-sistema erabiliz.



**b)** Irakasleak, laburtze zeinuak erabiliz, aurreko ariketaren antzekoak idatziko ditu arbelean. Ikasleek horien interpretazioa idatzi behar dute, aurreko ariketan aipatu den bezala, ohiko notazioa erabiliz.

# Bibliografia

## Musika-teoria honetan aipatutako bibliografia


- **Azkue, Resurrección María de:** *Diccionario vasco - español - francés,* Euskaltzaindiak argitaratua, Bilbo, 1984.
- **Azkue, Resurrección María:** *Cancionero popular vasco,* (2 liburuki), La Gran Enciclopedia Vasca arg., Bilbo, 1968.
- **Capella gregoriana Easo:** *Cantate Dómino, zuzendaria Javier Irastorza,* Elkar arg., 2001 (Lau CD-k osatzen dute kantu bilduma eta liburuxka batean partiturak eta kantu gregorianoari buruzko azalpenak agertzen dira euskaraz, espainieraz, frantsesez eta ingelesez)
- **Danhauser, A.:** *Théorie de la musique,* Henry Lemoine arg., Paris, 1929 (espainieraz *Teoría de la música,* d.g.).
- **Eusko Jaurlaritzaren Euskara Zerbitzuak** argitaratutako *Kontrapas. 1950 aurreko kantuen eskola-katalogoa,* Gasteiz, 1998.
- **Graduale triplex:** Solesmes Abadiak argitaratua, 1979.
- **Guido D'Arezzo:** *Micrologus de arte musica* (1023) eta *Epistola ad Michaelem.*
- **Menéndez Aleyxandre, A.:** *Curso completo de teoría de la música,* Mozart Institutuak argitaratua, Bartzelona, 1962.
- **Nattiez, Jean Jacques:** *Fondements d'une sémiologie de la musique,* Union Générale d'Éditions, Paris, 1975 (ISBN 2-264-00003-1), III. zatiko I. kapitulua: *Les procédures taxinomiques de Nicolas Ruwet.*
- **Sallaberry, J.-D.:** *Chants populaires du Pays Basque. Paroles et musique originales,* Maule, 1870. Klonikus argitaletxearen argitalpena ISBN: 2-84578-009-5.


## Kontsultatutako bibliografia


- **Cardine, Dom Eugène:** *Première année de chant grégorien,* "Institut pontifical de musique sacrée" izeneko erakundeak argitaratua, Erroma, 1975.
- **Deliège, Célestin:** *Les fondements de la musique tonale,* Jean Claude Lattès arg., Paris, 1984.
- **Don Randel (ed.):** *Diccionario Harvard de música,* Alianza arg., Madril, 1999.
- **Jeanneteau, Jean:** *Les modes gregoriennes. Histoire. Analyse. Estetique.* Solesmes. 1975 (espainieraz: *Los modos gregorianos. Historia - Análisis - Estética,* Santo Domingo de Silos, Burgos, 1985).
- **Michel, François**-ek zuzenduta (hainbat eragile): *Enciclopedia Salvat de la música* (4 liburuki), Salvat arg., Bartzelona, 1967 (frantsesez *Encyclopedie de la musique,* Fasquelle editeurs, Paris).
- **S.D.M.** (hainbat egile): *Teoría de la música,* "Sociedad Didáctico Musical" izeneko elkarteak argitaratuta, Madril, 1959.
- **Stanley Sadie:** *Diccionario Akal/Grove de la música,* Akal arg., Madril, 1993 (ingelesezko izenburua: *The Grove Concise Dictionary of Music,* Macmillan Pres Ltd., London, 1988).
- **Ulrich Michels:** *Atlas de música, I,* Alianza arg., Madril, 1982 (alemanez, München, 1977).
- **Ulrich Michels:** *Atlas de música, II,* Alianza arg., Madril, 1992 (alemanez, München, 1985).
- **Zamacois, Joaquín:** *Teoría de la música I,* Labor arg., Bartzelona, 1949.
- **Zamacois, Joaquín:** *Teoría de la música II,* Labor arg., Bartzelona, 1954.


## Hizkuntzak eta musika


- **Barandiaran'dar A. Emiliano:** *Eresi ikasbidea* (eskuizkribua), Markina, 1960.
- **Bostak Bat:** *Sinonimoen hiztegia. Antonimoduna,* Adorez 3, "Bostak bat" lantaldeak argitaratua, Bilbo, 1988.
- **Elhuyar hiztegia:** *Euskara – gaztelania. Gaztelania - euskara,* Elhuyar fundazioak argitaratua, Usurbil, 2006.
- **Euskaltzaindia:** *Hiztegi batua,* Elkar argitaletxea, Donostia, 2008.
- **Euskarari buruzko kontsultak egiteko gomendatzen dugun webgunea:**
  http://www.erabili.com/lantresnak/hiztegiak/uzei_sinonim
  Bertan honako baliabideak agertzen dira: *Elhuyar hiztegia, Euskalterm, Euskaltzaindiaren hiztegi batua, Orotariko euskal hiztegia, 3000 hiztegia, Sinonimo eta antonimodunen hiztegia, Uzei sinonimoen hiztegia, Eusko Legebiltzarreko Administrazioko hiztegia, Hiztegi terminologikoa, Harluxet hiztegi entziklopedikoa, Morris hiztegia.*
- **Gonzalez Casado, Pedro:** *Términos musicales (diccionario técnico español - inglés / inglés - español),* Akal arg., Madril, 2000.
- **Larousse:** *Gran diccionario Español – francés. Français - espagnol,* Larousse arg., Bartzelona, 1999.
- **Dembski, Stephen** (hainbat eragile): *International vocabulary of music,* Éditions musicales Transatlantiques, Paris, 1979.

- **Leuchtmann, Horst**-ek zuzenduta (hainbat eragile): *Polyglottes Wörterbuch del musicalischen Terminologie,* Akadémiai Kiadó Budapest, Bärenreiter Kassel - Bassel - Tours - London, 1980.
- **Mugica Berrondo, Placido:** *Dicccionario castellano - vasco,* El mensajero del Corazón de Jesús arg., Bilbo, 1965.
- **Urruxulegi, Jon:** *Sinonimoen kutxa. Sinonimo eta antonimoen hiztegia,* Elhuyar arg., Usurbil, 1999.
- **UZEI:** *Sinonimoen hiztegia,* Uzeik argitaratua, Donostia, 1999.
- **UZEI:** *Musika hiztegia,* Elkar arg., Donostia, 1986.